

# ERDI AROA: V.mendetik XV.mendera

## 1.ATALA. Kontzeptuaren jatorri eta definizioa

### ERDI AROA ZERGATIK IKASI?

- Iraganaren azterketa edo ikaskuntzak orainaldia ulertzen laguntzen digu. Ikasbide moral bat ematen digu bere lan metodologian aplikaziotik eratorria.

#### **Kritika**

- Gizabanako independenteak hezitzea, garai bateko ideia, sineskeria edo irudietatik askatzeko gai izango direnak.
- Errealitatea bere osotasun eta konplexutasun guztian aztertu eta ulertzeko gai izango diren pertsonak sortu.
- Ziur asko, iraganaren denboraldirik ezezagunena edo gaizkien ikertutakoa da.
- X.mendean hizkuntza erromaniko edo "arrunten" agerpena ematen da, gaur egun oraindik erabiltzen ditugunak.
- Orainaldian ere Erdi Aroko isla edo aztarnak aurkitu ditzakegu (zeintzuk?)
- Lan metodoa: kritika, hausnarketa eta frogaketa/egiaztapena: metodologia, iturri dokumentalak eta interpretazio arazoak (Historia berreraikitze objektiboa ala subjektiboa da? zientzia edo literatur estiloa da?) Subjektiboa irabazleek idatzi ohi dutelako.

### HISTORIA ETA BIZITZAREN INGURUAN HAUSNARKETA

- Gizarte guztiek dute bere iraganaren kontzientzia tenporal bat.
- Bere existentzi biografiko indibidualaren baino lehenagoko aldi bat egon zela.
- Lehenaldi komunitario honen sorkuntza elementu ezinbestekoa bihurtzen da, balore erakunde eta tradizioen esentzia, ingurune fisiko eta beste inguruko gizarteekiko harremanak finkatzen dira.
- Identifikazio, legitimitate, orientazio faktore bezala funtzionatuko baitu.
- Tradizio oralak igorritako kontakizun mitiko eta erlijiosoekin egiten duten bezala.
- Iraganaren ezagutza bizitza sozial guztiaren elementu kritiko bat da, maiz baliabide politiko bihurtzen da.

### ERDI AROAREN JATORRIA

-Ez da iraganaren errealitate objektiboa. Analisi historiografikoaren kategoria bat da.

(historialariaren banaketa errazago ulertzeko)

- **V-XV**.mendean gauzatzen da. Mila urte, Antzinarotik Errenazimendura.

-Adinen banaketa kontzepzio historiografiko kristauari zor diogu:

1. Aurrerapenaren ideia eta honen garapena adin batzuen segiden bitartez **kultura kristauaren** elementu propioak dira, historiaren filosofoengatik geroago onartuak.

2. Kultura kristau baten parte edo oinordeko garena uste duzue?

- Mendebaldeko herrietan garbi agertzen den aldi historikoa da, baina bere erabilera beste eremu edo tokietan ez da egokia ( Islamiar mundua, Txina, India, Japonia, Ameriak).

- "Erdi Aroa" ideia gisa Errenazimentuan (XVII.mendea) agertu: Antzinaroko Klasikoaren balore kultural eta artistikoen berreskuratze testuinguruan.

1. Historia unibertatsala ulertzeko forma berria, 3 adinetan banaturiko prozesua bezala: Antzinaroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa

- Dekadentzi irudia izango duen denboraldia jarraitzean izango du XX. Menderarte.

1. Historialari erromantiko eta nazionalistek **Europa osatzen duten nazioen jatorria Erdi Aroan** dagoela jabetuko dira. Erdi Aroko sinbologia gaur egun presente. Adib. Arranoa. Nazionalistek euren jatorria garai honetan aurkituko dute, legitimazioa lortzeko.

2. Loraldi eta bultzada berri bat emango zaio Erdi Aroaren ikerkuntzari



Reino de Navarra XI



XV-XVI Reino de Castilla

## ERDI ARO UNIBERTSALA EZ DA EXISTITZEN

Lurralde, kronologia, hizkuntza eta koiuntura irizpide ezberdinak

Mendebaldeko herrietan garbi agertzen den aldi historikoa da, baina bere erabilera beste eremu edo tokietan ez da egokia.

Hizkuntza, ezberdintasun eta sailkapen etniko anitzak, adibidez Euskal Herrian.

- ERROMATAR GARAIA: "Autrigo", "Karistoi", "Bardulo", "Baskoiak"
- BISIGODO GARAIA: "Baskoiak".
- 100.URTEAN: Euskaldunak ( vascongados).
- BEHE ERDI AROKO: Bizkaitar, gipuzkoar, nafar eta ipar eta hegoaldeko euskaldunak (XIV-XV.mendeak).
- Gaskoiak, gaztelaniarrak, juduak: Beste hizkuntzak.

Esaldia: "*El atrevimiento ayunte el miedo, qu0e para morir o bivar yremos a la guerra*" gerra erreferente ukaezin edo salbaezin bat da, kriston pixua eta beldurra ematen duen arazo bat

da. Zaldunak dira, besteak artisauak, merkatariak, elizgizonak, emakumeak...gehienbat gerrara joaten zirenak gizonak dira. Nola gauzatzen da Erdi Aroan gudara joateko ejertzitoen izendapena? Zaldunak joan behar dira, artisauak, arotzak, merkatariak?

Erdi Aroan gerrateak pisu handia edukiko du. Bildurra izango da nagusi, harresiek garrantzia. Mundu kaotikoa.

## METODO HISTORIKOAREN XEDEA: IKERKUNTZA ARAUAK, ITURRI DOKUMENTAL ETA BIBLIOGRAFIKOAREN KRITIKA

**Dogma** eta **errebisionismoa** oinarritzko posizioak izanik, zientzia historikoan aldi berean existitzen diren bi printzipioak dira: **OSO OSO GARRANTZITSUA**

### **Dogma**

iz. Erlijio edo filosofia-eskola batean, oinarritzotzat eta ezin eztabaidatuzkotzat hartzen den baieztapena. *Kristautasunaren dogmak (Ik. **sinesgai**). Dogmatzat hartua. Marxismoaren dogmak.*

### **Errebisionismoa**

1. iz. Sozialisten doktrina ideologikoa, Marx eta Leninen tesi iraultzaileak bilakaera politiko, ekonomiko eta sozialaren arabera berrikustea proposatzen duena.
2. iz. Dogma gisa finkatu den doktrina edo interpretazioa berrikustea proposatzen duen jarrera. *Japoniako errebisionismo historikoaren aitazindari argienetakoa da Shinzo Abe.*

Kritikak ezagutza historikoaren berrikuntza ahalbideratzen du, dogmen iraunkortasun laburraren kausa bezala, teoria historiko anitzen agerpena posible egin du

- Hala ere, dogmak antzeko papera jolasten dute, kritika eta errebisionismoaren gainetik jartzen saiatzen dira.
- Lehiaketa edo kontrajartze hau Historiak duen giza-zientzi izaerari zor diogu: biak kontzeptu historikoa garatzen den gizartearen estruktura mentalaren mende edo menpeko dira.
- Termino eta kontzeptu historikoen anbiguitasunak interpretazio dibertsitate edo aniztasunera eramaten gaitu.
- Arazo hauek Historiaren baliotasuna zalantzan jarri dute sarri.

Ezagutza historikoari eragiten dioten funts edo oinarriak:

- Dogma eta errebisionismoaren ohiko presentzia
- Errealitate eta ezagutza historikoaren arteko harreman estua: Historia idazten den garaiko edo momentuko interes eta kezkek islatzen ditu.
- Ohizko kontzeptuaren anbiguitasuna.

Ondorioak:

- Historiaren zientifikotasuna ez da edukian baloratu behar, ikerkuntza metodoan baizik.
- Metodologi egokia erabiliaz zientifikotasun handiago edo lortuagoa lortuko da (errebisionismoa ahalbideratu eta erraztu).

## TENDENTZI ETA ESKOLA HISTORIOGRAFIKOAK

Historiaren "*Historia*"

### Errenazimendua: kritika historikoaren agerpena (XIV-XVI.mendeak)

Antzinaroko klasikoen berreskurapen testuinguruan kritika dokumentalaren hastapenak (itzulpen eta interpretazio arazoak)

### Erudizioaren hobekuntza: metodologi historikoaren lehen pausoak (XVII. mendea)

Filosofoen planteamenduen eragin nabarmena (Descartes, Locke, Spinoza...)

### Ilustrazioa: "aurrerapen" ideiak "probidentziaren" lekua hartzen du. Historia zientifikoaren jatorria (XVIII. mendea)

### Ondorengo eskola eta tendentzi nabarmenak (XIX-XXI. mendeak)

- XIX. Eskola Alemana
- Erromantismoa eta nazionalistak
- Annales eskola (Frantzia XX.mendea)
- Materialismo historikoa (Marxismoa)
- Kliometria estatubatuarra (Historia ekonomiko berria)
- Gaur egungo munduaren Historia

## 2. ATALA. Europaren jaiotza (IV-X. mendeak)

### ERROMATAR INPERIOAREN BEHERAKADATIK GERMANIAR ERRESUMETARA

#### Aurrekariak

#### Erromatar inperioaren hedapena (k.a. VI-k.o. V mendeak)

Hirualdi edo etapa historiko ezberdin irizpide politikoetan oinarritutakoak

**Monarkia** (k.a. 753-509 urteak)

**Errepublika** (k.a. 509-27 urteak)

**Inperioa** (k.a. 27-k.o. 476 urteak)

*Kronologiaren inguruan zenbait xehetasun:* K.a. 750. urtea, Romuloren urtea, erromatarren egutegia.

- k.a. 750. urtea: Romuloren urtea, erromatarren egutegia. = ZIBILIZAZIO EREDU BERRIA (Occidente medio, Bizantziar inperioa eta Islama)
- K.a. 700. urtea: Numa-ren urtea.
- K.a. 46. urtea: Julio Cesarren erreforma (365 eguneko urteak, gaur egungo egutegi sistema). Erromatarrek taula bidez zenbatzen zituzten urteak.

#### Expansión del imperio romano



Estatu, organismo edo erakunderik ezin da existitu finantzaketa biderenbatek ez badu sustatzen  
CALIGULA (37-41)

Zerga berri eta ezezagunak bildu zituen, lehendabizi publikanoen bidez, gero, irabaziak handiak zirenez, zenturioi eta tribuno pretorianoen bitartez, inolako gauza-mota edo pertsonak ahaztu gabe. Hirian saltzen ziren elikagaiengatik kopuru finko eta ezarria eskatzen zen. Auzi eta epaiketengatik edonolako tokietan ospatuak izanda ere, auzian zegoen kopuruaren berrogeigarrena eramaten zen; eta zigorrak ahaztu gabe norbait auzia saihesteko akordioarenbat sinatzearen errudun aurkitzen baldin

bazen. Gazte garraiatzaileen eguneko irabazien zortizkoa exijitzen zen; emagalduen diru jasotzeen kasuan, koito baten kantitate baliokidea. Eta legearen atal hau emakume zein gizonen artean emagaldu edo bitartekari gisa aritutako guztiei impositu zitzairen, baita senar-emazteei.

- Publikano: erromatar garaiko errekaudadorea.
- Dirurik gabe ez dago estaturik, instituziorik, armadarik
- Erromatar inperioan dirudunak ezkontzen ziren, dirua ondo banatzeko beraien oinordekoen artean.
- Lehenengo 12 enperadoreen bizitzen kontakizunak.

---

Errepublikako gobernuaren antolakuntzan murgildua, Julio Zesarrek egutegia zuzendu zuen, aspaldidanik desorekatua zegoena pontifizeen erruz, egunak tartekatzeko zuten joera zela eta. Udako festak ez zuten uzta garaiarekin bat egiten, udazkenekoak mahats-bilketarekin bezalaxe. Urtea eguzkiaren ibilbidearekin egokitu zuen, 365 egun izan zitzaizkien laurteko egun bakarrekarekin. Horrela, tartekaturiko hilabetea ezabatu zuen. Baina urtarrileko azkeneko kalendak denboraren konputoarekin hobeto etortzeko, beste bi hilabete ipini zituen azaro eta abenduaren tartean. Erreforma hauek ezarri urtean egutegiak hamabost hilabete izan zituen, harri berri izan zen hilabete hau kontuan izanda, ohitura denez, bertan erori zen.

Augusto, Marco Tulio Ciceron eta Gayo Antonioren kontsulatuan jaiotzen zen, urriko kalendetako bederatzigarren egunean, eguzkia atera baino lehenago, Palatinoko eskualdean, "Idi buruetan", orain santutegia duen lekuan, bera hil baino gutxira eraikitakoa.

- Erromatar garaiko egutegiak: *Fasti Consularii*, kontsulen jardueraren arabera urteak zenbatzen dituen egutegia.
- Julio Zesarrek egungo egutegi sistema finkatu zuen. Julio Cesarren aurretik, urteak kaos nabarmen batetik zenbatzen dira egunak. Julio Cesarren urtea eguzkiaren ibilbidearekin egokitu zuen, 365 egun izan zitzaizkien, lau urteko egun bakarrekarekin.

SUETONIO, *Vidas de los Cesares*

### **1.1.III. mendeko krisia eta Inperioaren berrantolaketa**

#### **III. mendeko krisia: Seberoetatik (193) Dioklezianoren agintaldira (284)**

##### **Manualeko ezaugarriak ezberdinak.-**

- Funtzioa galdu, espazioak artikulatzeko gaitasuna galdu
- Biziaren ruralizazioa
- Harreman publikoen ahultzea (Pribatuak nagusitu)
- Tropen fideltasuna erosteko kapital eza.- Erroma seguru mantentzeko
- Kristautasunaren nagusitasuna

##### **Ezaugarri orokorrak:**

#### **Seberoen "monarkia militarren" (193-235) sistematik Maximo eta bere ondorengoen "anarkia militarren" (235-305) bilakaera prozesua.**

- Armadak Senatua ordezkatzeko du sarritan enperadoreen hautaketetan (militar eta usurpatzaileen txandatzeko nabarmena).
- Fronte militarretan (inperioaren muga edo "limes" -ean) lortutako garaipenak boterean ezartzeko sarbide edo bide nagusia bilakatzen da
- Armadako koadroen errefortzua: kide edo talde espezializatuak.
- Estatuko gastuaren igoera nabarmena.

#### **Inperio eta probintzietako administrazioaren erreforma/aldaketak**

- Zaldiko gizonen ("ordo equester") promozio edo igoera Senatuaren influentzia progresiboki ordezkatur. Legionarioen 'soldata' igoera.
- Maila baxuko burokraten progresioa Estatuko goi-kargu eta magistratuetan.

### Monetan balio-gutxitze eta zerga politika (krisi ekonomikoa)

- Zilarrezko txanponaren devaluazio bortitza (denarioa) (-%95) eta tipo monetario berrien ezarketa, molde eta erabilera laburrekoak.
- Nahitaezko prezioen igoera ondorio bezala baina langileriaren soldaten igoerarik gabe: erosteko ahalmenaren beherakada.
- Zerga berriak eta klase ertainei bideratutako presio fiskalaren areagotzea. Zergak mantentzen dituztenak klase ertainak dira, klase ertainei bideratutako zerga sistemak egingo dira mende hauetan.

### Erlijioa: kristautasunaren ezarpen progresiboa (NAGUSITASUNA) (prozesu motel baina atzeraezina)


- Ekialdeko kultu berrien adopzioa erromatar kontingenteen bitartez (Mitra, Serapis, Isis, Atitis, Cibeles).
- (ca. 200): Miraren gurtza da Mendebaldean gehien finkatu edo hedaturikoa.
- III. mendea: politeismo tradizionalak monoteismoari uzten dio lekua (Jainko goren bat gailurrean oraindik pluralista den kultu edo sinismen sistema batean).
- Botere politikoan dagoen buruzagia derrigorrez legislazioan jarriko du eta inperioan bizi diren biztanle guztiak gertu behar dute enperadorearen figura eta inperioarena.
- III.mendea ½ : kristauen jazarzea, gurtu imperialaren ezezkua.
  - 250. urtea: Daciok derrigorrezkoak egiten ditu jainkoei eskeinitako sakrifizio ekintzak pena edo zigor gogorrenpean: Erroma, Afrikan, Asia Txikian, Sirian eta Egipton jazarzeak.
  - 257. urtea, Valeriano: kristauen jazarzearen 2 ediktu. Elizaren goi hierarkia eta ondasunak, erromatar gizartean kristautasunera bihurtutako eliteak.
  - 260. urtea: tendentzia aldaketa, Galiенок kultu askatasuna ezartzen du.

\*ca→circa=gutxi gorabehera urte horretakoa dela.

### Fronteak, gudu fronteak eta politika belikoa

- Boterearen finkapena eta inperioaren hedapenaren freno edo atzerakada.
  - Ekialdean (ca. 235): Arsácida dinastiaren (*Partia* inperioa) ordezkapena sasanidengatik (persiarrak)
  - Mendebaldean: Danubioren fronteak eta germaniar herrien geldialdiak bake akordioen (*foedus*=bake akordioa) sinadurak eskatzen ditu.

Pertsiar inperioak ibilbide nahiko luzea izan zuen -> k.a.VI.mendetik k.o. VII.mendera



3. MAPA. PERTSIAR SASANIDARRREN IMPERIOA (226-651)

## Garaiaren gertaera nabarmenak

**Septimo Severo** (192-211) (jatorri probintzialeko lehen enperadorea) Monarkia militarrek

- Osroene erreinuaren eta Mesopotamia lurraldearen errekonstruktioa partiarren eta arabiarren aurka. Arabia ere berreskuratu zuten.

**Carcalla** (211-217) (bere anaia Geta eta bere jarraitzaileak hil zituen boterea lortzeko)

- 212. Constitutio Antoniana: erromatar hiritartasun estatutua inperioko hiri guztientzako. Zerga neurria.
- Herentzien zergen tasa bikoiztu zuen eta txanpon berria (*antoninianus*).
- Bi kanpaina: danubiar eta partoen aurka.

**Macrino** (217-218)

- Senatuko kide ez den lehen enperadorea izendatzeko momentuan.

(Heliogábalo (218-222) eta Alejandro Severo(222-235))

*Anarkia militarrek: Enperadore militarrek, ejerzitoak hautatuak eta denbora gutxiko iraupena.*

**Maximino** (235-238): alamanak garaitu eta pertsak Mesopotamia inbaditu.

**Gordiano III** (238-244): Resainako gudua: godoen laguntzarekin pertsak garaitu eta Mesopotamiatik botatzen ditu.

**Filipo Arabiarra** (244-249)

- Sedizio altxaketak barbaroen presioagatik: Kapadozia (Jotapiano), Danubio (Pacaciano), Siria (Uranio): enperadore izendatzen dira erreinu independenteak fundatu nahian.
- Balkanen okupazioa godoengatik.

**Decio Trajano**, irabazlea kanpaina gotikoan eta horrela enperadore bilakatu zen. Aldaketa politiko eta ideologikoak; kritauen lehenengo pertsekuzio orokorra.

**Treboniano Galo** soldadu danubiarrek aukeratu zuten enperadoretzat. Godoekin bake akordioa sinatu zuen baina hauek ez zuten jaramonik egin (Emiliano eta bere tropek gelditu zituzten).

Inperioan 4 enperadore: Treboniano eta bere semea Volusiano (legitimoak) eta Valeriano eta Emiliano (ilegitimoak). 253an Umbrian borroka, Valeriano garaile

**Valeriano** (253-260)

- Inperioaren lehendabiziko zatiketa Mendebalde (Galieno) eta Ekialdearen (Valeriano) artean fronteen defentsa babesteko.
  - Ekialdean: barne altxaketak eta pertsiarren sarrera.
  - Mendebaldean: godoak, karpok, kuadoak eta markomanoak Danubioko frontera, frankoak eta alemanak Rhinekoan.
- (261) Inperioko senatariei militar karrera jarraitzeko debekua, probintzien gobernu tropa militarren bitartez gauzatuko da.
- Bi ediktu krisatuen pertsekuziorako (257-8)

**Galieno** (260-268) ejerzituaren erreforma.

**Claudio II** (268-270) Naisusen batailan alamanak eta godoak garaitu

**Aureliano** (270-275) batasun inperiala berreskuratu, **Probo** (276-282), **Caro** (283-284)



**Iliotarren errekupeketa politiko eta ekonomikoa.** 268-284 militar ilioetek boterea.

Inperioaren berrantolaketa (III. mende bukaera-IV. mendea)

**Diocleziano eta Tetrarkia (284-305)**

- Gobernu sistema berria: 4 enperadore eta 4 sede inperial
- Erreforma militarra
- Administrazioaren erreforma: probintzien handiagotzea (50etatik 96ra). Deszentralizazioa.

Tetrarkia 293-314:

**Gerra sahiesteko administrazioaren zatiketa** da. Hiribilduak (militarrak dira) fronterekin markatu. Erromatar inperioek bere erakunde era administrazioarako ezartzen dituen zatiketa eta abanketa instituzionalak. Honen barruan probintziak daude.



**Constantino I askatasuna izendapenarekin (324-337)**

- (312. urtea) Majencio garaitu eta mendebaldeko probintziak irabazi
- (313. urtea) Milaneko ediktua: kristau jazarpenen bukaera eta kultu.
- (330. urtea) Bizantzio sede inperial berria "Konstantinopla", Inperioaren zatiketa formal. Diozesia barruan probintziak daude.
- Bere heriotzarekin tetrarkia hautsi zen

**Constancio II (337-361)**

- Konstantinoplako Ekialdeko Senatuaren sorrera
- Enperadorearen zerbitzuan dauden inspektoreen handiagotzea.
- Administrazio eta armadan integratuak dauden kristauen errefortzua.

**Juliano (361-363)**, sinesmen paganoak bultzatu zituen kristauen krisiaz baliatuz. Bere jarduera ekialdean zentratu zuen. Gero, Joviano enperadore, Armenia galdu.

**Valentiano (364-378)**

- Inperioko administrazioaren zatiketa formal 2 alderditan: administrazio eta armada ezberdinak batasun legislatiboa mantenduz.

**Valente (-378)**

- Enperadorearen heriotza Adrianopoliseko batailan (378) bisigodoen aurrean (Edirne-Turkia)

**Teodisio (379-395)**

- (380.urtea): Tesalonikako ediktua: kristautasuna inperioko erlijio ofiziala (379-) bihurtzen da.
- (382.urtea): *Foedus*-a bisigodoekin hauen finkapena ahalbideratzen du Mesian (Balkanak).
- (384.urtea): Teodisio eta Sapor III. arekin bake akordioa. Armeniaren zatiketa
- (395): Partitio imperii

## **1.2. Barbaroen ezarpena. Germaniar erresumen hastapenak (IV-V. mendeak)**

Gizartearen antolamendua:

Germanoen finkapenak ez du estruktura aldetik aldaketarik ekarriko; salbuespena, bandaloak.

III.mendean > **populazioak behera** egingo du eta berarekin batera funtzioak ere behera

**Sistema zaharra krisian** sartuko da= urbs + territorium (hiri batzuetan mantenduko da harresien poderioz)

Merkantzia arloan beheraldi nabarman izango da, sistema galtzearen arrazoi zehazki. Bideak mantendu egingo dira nahiz eta egoera txarretan egon erabilera ezagatik.

Berrerabiltzen hasiko dira VI.mendean.- Bizantziarrak Ipar Afrika hartu zutenean Negozio berriek dirudunak hornituko ditu. **Komertzio eta merkatuak karakterra aldatuko ditu** (ez ditu hiri handiak hornituko, baizik eta objektu txikiak eta balore handikoak aberatsei ahalbidetzen zizkieten)

Diru falta nabarmenaren ondorioz, TRUKEA **esklaboen eta errearen bidez** egingo da. Interkanbioak oso komunak dira. Bi arrazoi; autosufizientea izatea eta momentuko aginte politikoarentzako interes handikoa zelako.

> Antolaera.-

- Aristokratak
- Langileak (esklaboak, kolonoak, zerbitzariak...)
  - ❑ Lurrak landuko ditu administrazioaren menpe
  - ❑ aberatsen zerbitzura egongo dira

Sierboak gizon bezala identifikatu zituzten gehiegi zirelako eta esklabo asko zeudelako. Kolonoak juridikoki libre kontsideratuak ziren.- Jabe handien babesa lortu zutelako lurren trukean.

**Kronologi mugak eta ezaugarri orokorrak:**

405-750.urteak. Germaniar taldeen sarreratik 3 area ekonomiko, politiko eta kulturalen finkapena

1. II.mende bukaeran hasten den prozesu luzea izango dugu, IX. Mende erdialdearte bukatuko ez den, bikingoen ezarpenarekin.
2. Bi fase handi:
  - "Lehenengo inbasioak". 376. Urtea (bisigodoen etorrera) 568. Urtea ( lombardoen finkapena Italian).
  - "Bigarren inbasioak": IX-X. mendeak: bikingoak, hungariarrak, pirata sarrazenoak.

**Lehenengo inbasioak: "barbaroak" eta Inperioaren beherakada**

**Barbaroen barneratzeak: Inperioan bi modalitate edo modutan gauzatuko dira**

- **Zilegizko sarrerak** (onartuak). (etorkinen kopurua handia ez delako eta lanerako erabiliko dituztelako) GIZARTE ESKLABISTA
- **Inbasioa**. Etnia desberdin edo askotarikoak ("germaniarrek")
  - K.o I. mendetik erromatarrek ezagun zituzten lekualdaketa herrien migrazio ezaugarriak izango dituzten mugimenduak gehienetan bat-bateko inbasioen aldean

- II-IV. Mendek: talde familiar edo tribu fakzio txikien saildiak, inperioak arazorik gabe onartuko dituenak.
- IV-V. mendek: herri osoek bideratutako saildiak


Asiar herrien migrazioak (IV-V.mendek)

## Inbasioen faseak

### Lehenengo inbasioak.

**376. urtea: Godo, eta bisigodoen sarrera oxtrogodo taldeekin, Danubio ibaiaren zeharkaketa.**

- 375: Asia Erdetik etorritako Hunoak Doa Ibaia menperatzen dute godoak bultzatuz.
- Hasiera batean Erromak onartu egiten ditu (mantendu)
- 378: erromako funtzionarioen gehiegikeria eta godoen altxamendua. Adrianopoliseko matxinada/bataila armada inperialen porrotarekin (godoen zalduntza).
- 382: *foedus*-aren sinaketa godoen finkapena bideratzen du Mesian, Erromaren zerbitzuan egongo diren frontierako tropak bezala.



### Bigarren inbasioak.

**396: Hunoen sarrera Dazian eta Panoniako arroan beste germaniar herrien existentzia aztoratzen du, Inperioaren mugak gaudituko dituztenak. 15 urteren bitartean mendebaldeko erromatar inperioaren inbasio fasea gauzatuko da (germaniar erromanizatuak, bagauda matxinadak).**

- 400: Bandalo eta alanoak Retia eta Norika hartzen dute (gaurko Austria eta Suitza).
- 405: herri hauen talde ostrogodoekin Italian sartzen dira (Estilikonek geldiaraziko dituelarik).
- 406: Bandalo, alano eta sueboak Rhin ibaia zeharkatu eta Galiaren inbasioa prestatzen dute.
- 407: Britainian kantonatuko inperioaren tropak kontinentera bueltatzen dira: pikto, sajoi eta eskotoen sarrera irletan gauzatzen da.
- 408: Estilikonen hilketa bisigodoen sarrera errazten du Italian (410. urtean Alariko eta bere ostek Erroma arpilatzen dute).  
-San Agustinen pentsaeraren adaptazio eta definizioa
- 409: Suebo, alano eta bandaloak baturik, sarrera Hispanian.  
-Bisigodoen kontratazioa Inperioaren zerbitzura beste germaniar herrien aurka (415. urtean Hispanian sartzen dira).
- 418. urteko *foedus*-a: enperadoreak bisigodoak Aquitania eta Toulouse artean instalatzen dira federatu gisa bezala (Mendebaldeko lehen erreinu barbaroen sorrera).  
Bigarren inbasioek “onurak ekarri zituen”; inbasioen ondorioz, erromatar-inperioaren gizartearen sorkuntza eta hedapena emango da.

- ★ DIOZESIA: Erromatar inperioak bere erakunde eta administrazioarako ezartzen dituen zatiketa edo banaketa instituzionalak. Honen barruan probintziak daude.
- ★ LIMESA: Inperioaren frontera. Latinez frontera deskribitzeko terminoa
- ★ FOEDUS: Akordio edo bake sinaketa.

#### ERROMAREN PORROTA ULERTZEKO

Erromatar administrazio publikoa birrintzea izango da. V. mendeko testuingurua. Konkisten inguruan estatuaren desagerpena. Biztanleak, dirua, armadak, zergak galtzen ditu erromak, bisigodoen erregentzako dira diru sarrera hauek. Erromak bere administrazio mantentzeko dirua behar du ZERGAK. Estatuak galtzean zergak galtzen ditu.

**429: Bandalok hegoaldean, Gibaltarreko itsasartea gurutzatu eta Ipar Afrika arakutzen dute.**


- 430: Hiponaren setiaketa eta San Agustinen heriotza.
- Erroma eta ipar Afrikako itsasbideen haustura.
- *Foedus* berria: inperioko bigarren erresuma barbaroen ezarpena.

**451: Atila eta hunoak Galian barneratzen dira, hurrengo urtean Erromako hiria mehatxatuz.**

- 451 : Atila Galian garaitua da Katalauniar Zelaietako gudan.
- 452: Atilaren heriotza eta huno inperioaren haustura.
  - Hauen ondorengotzat Bulgariarrak ematen dira, Kanato (erreinu) honen goraldia 679an emango da Kufraten eskutik eta Kazaroek garaituak izanen dira honela Bizantziarreri bateratuz. Danubio eta Volgan kokatzen ziren.

455: Bandaloen konkista Erroman

**476: Odoacrok (heruloa) Romulo Augusto enperadorea baztertzen du eta inperioaren intsignak Konstantinoplara bidaltzen ditu**



Konkista militar bat ikusten da, baina erromako inperioaren estatuaren beherakada da, admin publiko baten (estatu) baten porrota. Zerga eta diru sarrerik gabe tropak ezin dira finantziatu. Eta estatuak galtzen direnean zergak galtzen dira.

*Germaniar herrien inbasioak (IV-V. mendeak)*

Barbaroen finkapen eta sendotzea: germaniar erreinuen hastapenak (IV-V mendeak)  
**Finkapen modalitateak, 476. urtetik aurrera mendebaldeko inperioaren oinordeko bezala agertzen diren erreinuen jabeak.**

- a) Talde familiar edo herri fakzioen barneratzea, kolonizatzaile moduan finkatzeko lekua bilatzen zutenak.

- b) Konkista indarrezko ebastearen (3 kasu): anglo eta saioiak Ingalaterran; bandaloak ipar-Afrikan; 568. urtetik aurrera lonbardoak Italian.
- c) *Foedus*-aren sinaketa Inperio eta germaniar herrien artean: bisigodoak (Toulouse-Aquitania); burgundioak (Borgoina); ostrogodoak (Italia).

### (M) BARBAROEN FINKAPENA.-

III.mendean krisia jaso zen; 5 ezaugarri

1. Funtzioak galdu, espazioak artikulatzeko gaitasuna galdu
2. Biziaren ruralizazioa
3. Harreman publikoen ahultze (pribatuak nagusitu)
4. Tropen fideltasuna erosteko kapital eza; Erroma seguru mantentzeko
5. Kristautasunaren nagusitasuna

Barbaroen esku hartzeak Inperio Erromatarren bi modalitate izan zituen;

1. sartzeko baimena
2. inbasio justuak

Germanoak=inbasoreak.- Migrazioa hobe; helburua, leku egokia bilatzea bertan finkatzeko eta haien biziraupenerako

II eta IV.mendeetan.- tribuen bidez saiatu ziren. IV.mende amaieran modu hau etnia ezberdinek egin haien erlijio finkatu nahirik, alabaina Godoek bakarrik egin zuten.

376: Godoak Inp. Erromatarren sartu; onartuak izan ziren

378: Godoak ez zuten haien hitza bete eta Adrianópoliseko armada suntsitu zuten. Gerra honek estrategia militarren eragina izan zuen. Halaber, VALENTE enperadorea hiltzeak garrantzi handia izan zuen; Teodosio behartua izan baitzen Godoekin tratua egitera.

**Germaniarren banaketa Inperioan eta hauen dominazio lekuen mugaketa erresumak bezala mendebaldeko inperioaren beheakada baino 30 urte geroago ikus daiteke garbiago.**

- ❖ **Sueboak** (Gallaecia)
- ❖ **Bisigodoak** (Galia eta Hispania)
- ❖ **Bandaloak** (Ipar-Afrika)
- ❖ **Alemanak** (Alsazia eta Worms)
- ❖ **Frankoak** (Rhin, 507 Vouillé: hedapena Frantzia zehar)
- ❖ **Burgundioak** (Saona eta Rodanoko ibarretan)
- ❖ **Anglo, Saijoi eta Jutoak** (Britannia)

### Ezaugarri ekonomiko eta sozial orokorrak

***Foedus*-en termino edo ildo nagusiak**

- Hasiera batean eskualdean finkatu eta kanpamendu modura ezarritako germaniarren gastuak inperioak jasango ditu.
- V. mendetik aurrera: bi modalitate.
  - Lurren zatiketa/banaketa germaniar eta erromatarren artean ( $\frac{2}{3}$ ).
  - Inperioko errenten (zergen) zatiketa.

**Germaniarren gailentasun politikoa, baina erromatar biztanle gehiago izango dituen gizarreak jarraitzen izango dira (%5).**

**Populatzeko landatar eta ezegonkorra autoritate publikoen gainbeheraren ondorioz.**

Ekonomi ondorio nabarmenak izango dituenak.

- Hirien gainbehera: jurisdikzio labur edo galdutakoarekin (harresiak).
- Mugimendu eta aktibitate ekonomikoen beherakada, orain landatar eremuetan bildua
- Maila handiko komertzio (internazionala) luxuzko ondasunetan emango da gehienbat, Bizantziorekin kontaktuan jarraituko duena (esklabuak).
- Barbaroen akuñazioak botere politikoaren sinbolo bezala hartu behar ditugu kontuan, baliagarriak diren tresna ekonomiak baino.

---

### **La división de tierras entre godos y romanos**

Por ninguna razón, se ponga en tela de juicio la división de tierras y bosques hecha entre godos y romanos. Los romanos no deben reivindicar nada de los dos tercios concedidos a los godos, ni éstos del tercio dejado a los romanos. Y que los descendientes respeten la división efectuada por su antecesores o por los vecinos.

En cuanto a los bosques, que inicialmente quedaron al margen del reparto, si los godos o los romanos se apropian de ellos para ponerlos en cultivo, establecemos que, si todavía quedaran bosques con los que poder compensar esa apropiación, efectúese tal compensación. Si, por el contrario, ya no quedaran bosques, procédase a repartir las tierras que, fraudulentamente, se pusieron en cultivo.

*Lex Visigothorum, X, 1, 8 y 9, Antigua.*

*J.A. Garciade Cortazar, Nueva Historia de España en sus textos, Edad Media*

---

### **Ezaugarri ekonomiko eta sozial orokorrak (jarraipena)**

Aristokratak "villae" edo lur sail handien jabeak izango ditugu, pixkanaka kompetentzi publikoak zirenak biltzen hasiko direnak (fiskalitatea, defentsa eta justizia). Jaurerrien hastapenak.

Klase sozial berrien agerpena: Jaunak botere publikoaren jabeak.

- Esklabuak (sistemaren biziraupena): Bertako biztanleriaren esklabutza.
- "Servi" morroi/mirabiak: alokairu sistema batena.
- Kolonoak: lursailen jabe libreak, defentaren truke jaunei emandakoak.

---

### **3. La privatización de las relaciones: la encomendación**

Al ilustre señor tal, yo tal. Siendo cosa sabido por todos que no tengo nada de que alimentarme y vestirme, solicité de vuestra piedad, y vuestra voluntad me lo ha concedido, poder entregarme o encomendarme a vuestra protección y jurisdicción (*mundum burdum*), cosa que hecho. En consecuencia, deberéis ayudarme y sostenerme en lo que respecta a mi alimentación y vestido en la medida que yo pueda servirlos y merecer esta ayuda de vos.

En cuanto a mi, mientras viva, debere servirlos y respetarlos dentro de mi condición de hombre libre sin tener derecho a librarme de vuestra jurisdicción o *mundum burdum* sino que, por el contrario, deberé permanecer bajo vuestra autoridad y protección todos los días de mi vida.

Por todo ello, si cualquiera de nosotros dos quisiera sustraerse a este pacto, pagará al otro tantos sueldos y, además, dicho pacto quedará en vigor. Para que cause los debidos efectos, las dos partes redactan y firman dos documentos escritos iguales. Cosa que hacen de esta forma

*Formulae Turonenxes, n43*

*Miguel Artola, Textos fundamentales para la historia*

### **Estatuaren krisia: boterea politikoaren biziraupen eta ahultasuna**

- Talde familiarretan eta enkomendi klientelistetan bilatzen den babesa, gizarte erromatar-germaniarren ezaugarri orokorra.
- Ahaidetasun taldeen sendotzea Estatuaren ahultzea konpentsatzeko.

- Enkomienda eta basailutza loturen lehenengo adibideak armen zerbitzua gauzatzeko (VIII-IX. mendeak)
- Landatar aberastasuna erreferente gisa non erromatar eta germaniarrak parte hartzen duten (eliteen bat-egitea, baita komunitate etnikoena ere).
- Elizaren hedapena botere erakunde bezala (germaniarraren bihurtzea).
- Boterearen banaketa: erregearen irudia baina autoritatearen kompetentziak pribatizatuak dituen erakunde edo arloetan. “*Primus inter pares*”. Armada, ogasuna eta justizia (epaiketen) arloetan gehienbat. “Comites” (bisigodoak), “earldomen” (anglosaxoiak), “duce” (lombardoak); apezpikuak.

### Erreinu erromatar-germaniarraren ibilbidea

- a) Erreinu iragankorrak: Bandaloak (534), Sueboak (585), Ostrogodoak (554), Lombardoak.
- b) Aurrerantzean estatu nazionalak bihurtzera deituak izango diren erreinuak: frankoak, anglosaxoiak eta “bisigodoak” (711).

### Ostrogodo eta lombardoak Italian

#### 490-493: Ostrogodoen sarrera italiar penintsulan eta Odoakro eta heruloen kanporaketa

- Teodoriko “Amaloaren” lidergoa: Konstantinoplan hezitakoa. Mendebaldeko ordezkari bezala aukeratua Bizantizotik (+526)

**534: Bizantzioren armada Italian sartzen da, Almalarikoren baztertzea** (Ipar Afrikako konskisten testuinguruan: bandaloen desagertzea).

**535-554: “Gerra gotikoa”** bizantziar armada eta ostrogodoen artean.

**ca. 569: Lombardoen irteera Panoniatik Italia bidera abaroen presioagatik.**

- Paviako hiriburuan ezarritako gorrea, lurralde zein boterea oso zatitua dagoen testuinguruan (Bizantziar presentzia, Erromako Aita Santua, “duce” edo jaun lombardo aipagarriak).
- Bizantziar tropak iberiar penintsulara iritsiko dira (mapa)

### Britainiar irlak


**407: erromatar destakamentuen irteera kontinentera (Rhin-eko frontieraren defentsa)**

- Anglo, saxoi eta jutoen etorrera: irlen arpilatzea eta bretoi autoktonoen desplazamendua ipar eta mendebaldera.
- Armorikaren (Bretainia) fundazioa kontinentera.
- Pikto eta eskoto irlandarren erasoak ipar eta mendebaldeko kostalde eremuetan.

**V. mende erdialdetik- VII. mendera (Iturri historikoen hutsunea)**

**VIII. mendea: Belda “beneragarria”:** *Historia ecclesiastica gentis Anglorum*

- *Heptarkia anglosaxoia*: Essex, Estanglia, Kent, Mercia, Northumbria, Sussex eta Wessex.



**IX. mendea: bikingoen inbasioak;** Danelag: Northumbria, East Anglia eta Merciaen daniar eremua (878)

### Bisigodoak Hispanian

376: Danubio ibaia zeharkatzen dute.

415: Hispanian sartu eta foedus-aren sinaketa (418).

507: Vouillé-ko bataila Clodoveoren frankoen aurka: Galiaren galtzea. Hispanian jarraituko dute beraien ibilbidea bisigodoek.

554: Justiniano bizantziarren ostean sarrera (Murtzia eta Ekialdeko Andaluzian).

### Erresumaren hedapena eta administrazio publikoaren bilakaera

**585:** Sueboen kanporatzea Gallaecia-tik (Leovigildo) Franko, bizantziar eta baskoien fronteak.

**589:** *Toledoko III. kontzilioa*. Kristautasunera bihurtzea (Arrianismotik).

**625:** Bizantziar lurraldeen errekuperaketa.

**654:** *Liber Iudiciorum*: zuzenbide bakarra gizarte eta erresuma guztirako (godo eta hispanoak). Bi arazo nabarmen:

- Aristokraziaren goratzea errege-botere politikoaren zatiketaren aurrean.
- Krisi instituzional eta ekonomikoa: eskabuen desertzioak eta uztaro urrien errepikapenak.

**711:** musulmanen sarrera eta dominazioa penintsulan.

Islamaren hedapena (VII-VIII mendeetan). Hasieran tribuak dira, mahomak hasi eta beste gobernari eta buruzagi ezberdinek hedapen ikaragarria lortuko dute oso denbora gutxian. Txinaraino iritsiko dira.

### Liber Iudiciorum (654)

#### **I, 2, 5. Zergatik egiten da araudia?**

Legeak egiteko behararen arrazoa honetan datza: hauen beldurratik (metu) giza gaiztakeria zapaldua izan dadila (inprobitas), errugabeen bizitza errudunengandik babestu, eta gaizkileen artean ere, zigorraren (supplicio) beldurrak okerkeria egiteko asmoa (nocendi) gelditua izan dezan.

- Germaniarren legeak klase sozialen ezberdintasuna legean ezartzen dute, hau da, klase sozialen ezberdintasun hori instituzionalizatu egiten da. Nobleak eta pertsona libren artean humilak direnak eta ez.

#### **II, 3, 4. Tormenturik (questio) ez dadila inoiz agindupean burutu pertsona nobleen (nobilibus) artean, eta zein moduan pertsona umilei, libre edo mirabeak izanik, tormentua ezarriko zaien**

Inolaz ere onartzen dugu agindupean torturarik (questionem) ezartzea pertsona nobleen artean. Beste aldetik, pertsona libre eta behartsuak, aldez aurretik okerra egindakoak (in crime), modu honetan bakarrik baimendu egiten dugu, agindupean, torturaren inposizioa: mandatariak eskatu dezala kontua ezartzea pertsona horrengan, ez mirabe baizik eta gizon libre bati, berak baieztaturiko mandatuarekin edota hiru testiguen sinadurarekin (adnotatione). Eta errugabe bati tortura (tormentis) ezarri izan bazaio, mandatariak (mandator) jakin dezala seigarren liburuan ezarritako zigorrarenpean gelditzen dela, titulu lehena, aro bigarrega, non ezartzen den zeinek eta zergatik inposatu dezakeen tortura (questioni) pertsona librearen artean. Beste auzi kriminalak ordea, bideratuak ahal izango dira agindupean, lehen esan den bezela, pertsona libre baten inguruan egondako auzietan, torturaren inposaketa ordezkari libre baten karguan egonik.



**III, 1, 1. Legezkoa izan dadila godo batek erromatar (emakume) batekin ezkonzea (sociari matrimonio) erromatar (emakume) batek godo batekin bezalaxe.**

Printzearen atentzioak erakusten du arduratsua dela herrien ongizatea (beneficia) babestea etorkizuneko beharrei begira. Eta berezko askatasunak poztu beharko du ez gutxi antzina batean ezarritako legea orain indargabetzen dugulako. Dekretu honek duintasun eta leinuan (in genere) berdinak (compares) ziren pertsonak ezkontzetan banantzen saiatu zen. Horregatik, adimen hobearekin pentsatzen, ezartzen dugu, lege zaharraren epaia baliogabetzen, betirako balio izan dezala honako legea: Godo batek erromatar (emakume) batekin zein erromatar (emakume) batek godo batekin ezkondu nahi baldin badu, berezko solemnitate eskaera eginda, libre izan dadila egiteko, eta gizon libre batek nahi duen emakume librearekin ezkondu dadila, onest elkartasunean (honesti coniuntione), aholkua eskatuz (consultum perquiriendo) eta gurasoen baimen irmoa lortuz.

**VIII, 1, 5. Epaiketak gabe ez dadila inori ondasunik usurpatu.**

Inongo konde (comes), bikario (vicarius), administratzaile (villicus), prepositu (prepositus), ordezkari (actor) edo prokuradorerik (procurator), ezta gizon libre edo miraberik, saiatu dadila inorren ondasunik usurpatzen, errege, jaun edo bakoitzaren eskubidearen izenean, epaiketak ospatu baino lehen. Eta epaiketak itxaron gabe, norbaitek beste baten jabegoa indarrez hartu ezker, hartutakoa itzuli beharko du bi aldiz, eta auzi-jartzaileari lurren urte bakoitzeko fruituak eman diezazkiola hartutako kopurua zinez aitortu ondoren. Eta mirabe batek bere jaunaren baimenik gabe horrelakorik egitekotan, ehun azote jaso ditzala.

**VIII, 1, 6. Norbait harrapatzen baldin bada beste batzuk arpilatzerara gonbidatzen.**

Norbaitek beste batzuk arpilatzerara gonbidatu eta beste batena den zerbait suntsitzen badu, edo artalde eta animaliak lapurtzen baditu, lapurtutakoa hamaika aldiz itzuli beharko dio bere jabeari. Eta berarekin egondakoak, gizon libreak baldin badira, bost sueldoko konpentsazioa ordaindu dezala bakoitzak, eta ordaintzekorik ez izatekotan, berrogeita hamar azote jaso ditzala bakoitzak. Baina, lapurreta mirabe batzuk burutu badute bere jaunaren borondaterik gabe, ehun eta berrogeita hamar azote jaso ditzala bakoitzak hartutakoa bueltatuz.

## INPERIO KAROLINGIOA: BILAKAERA, INSTITUZIOAK ETA GIZARTEA



Konkista militarren bidez hainbat lurralde ezberdin batu zituzten administratiboki (zaila). Islamaren hedapena: Iberiar penintsulan islama dugu, Asiaraino eta Indiaraino iristen da beraien influentzia. Inperio karolingioa: kristau erlijioaren babesle bakarra, islamiarren mehatxuaren aurrean. Pixkanaka bizantzioren lurraldea txikitzen doa, indarrak galtzen.

Kanpoan, bizantziarren eragina oso nabarmena da.


### 2.1. Frantzia Merobingiarra (V-VII. mendea)

V.mende hasiera: frankoen sarrera gaur egungo Belgika eta Frantziako iparraldean

- *Foedus*-ik gabeko finkapena: ondare publikoaren okupazioa, frankoen bi talde etnikoen fakzio zehatzen artean: salioak eta ripuarioak. Ez zen erromatarrekin akordiorik egin.

Klodobeoren erregealdia eta kanpaina militarrek (481-511)

- 496. Klodobeo bautizatua da honela kristautasunera pasatuz.
- 507. Vouillé: bisigodoen kanporatzea frantziatik.
- Gortearen ezarpena Parisen.
- Erresumaren banaketa bere lau semeen artean. Testamentua.
- 535-537: Ostrogodoak Frankoekin neutral mantentzeko Alaman eta Provenza lurraldeak eman (honela mediterraneoan lurraldeak izanez.)



Klotario I.aren erresumaren bateratzea (558)

Klodobeoren ondorengoa. Anaiak hil eta lurraldeak okupatu dituelako. Eta oinordekoak hil zituelako

### Klotario II eta Dagobertoren erresumaren bateratzea (613-639)

Franko talde edo herrien dibertsitateak lurraldearen zatiketa bideratzen du, dukerri (Champgne, Toulouse) eta, batik bat, hiru erresuma nagusien inguruan: *Austrasia*, *Neustria* eta *Borgoina*.

Anai eta lehengusuak hiltzen ditu eta aristokraten interesen arabera errege hau bultzatu zuen, baita apezpikuek ere.

614: Edictum Chlotarii egiten da, lurraldeen kondeak lur-jabeak dira eta askatasun eta independentzia gehio jasotzen dute koroarekiko (lur horien buruzagia ez da erregeak bere lurraldetik bidalia).

629-639: Dagoberto I-ak independentzia hau kendu eta erreinu unifikatzen du zein berriz separatuko da Dagoberto hiltzean.

### Elizaren botere hazkundera

- Landatar elizaren hedapena germaniarren bihurtzearekin.
- Apezpikuen etengabeko influentzia gortean eta goi politikan. Aita-santuek oraindik ez dute botererik konparazioan.
- Lehen monasterioen ezarpena (irlandar monakotza eta aristokratek eraikitako zenobioak). Hasieran ez zeuden apezpikuen boterearen menpe.


### Austrasia erresumako maiordomoen gorakada, laster erregearen tronuan ezarriko direnak:

Metz-eko Arnulfo/ Landen-eko Pipino; Herstal-eko Pipino (687-714) eta Karlos Martel (Pipinoren semea) (715-741). Bere oinordekotza jasoko du eta Austrasiaren prestigioa handituko du (karolingioak ziren). Karlos martelek garaipen militar batzuk irabaziko ditu. Poitiersko guduan musulmanak garaituko ditu, hauek geldiaraziz. Karolingiarren prestigioa handituz joan eta merovingiarrak ere zeuden baina ez zuten gobernatzen. Hirugarren

ordezkari nagusia Pipino Laburra izango da, Karlo Martelen semea eta honek sendiaren dinastia nagusituko du eta horretarako azken errege Merovingiarra (Txilderiko III) tronutik botako du, hau dinastiako azkena izanik. Baina garrantzitsuena, zera da, Pipino laburra koroatu egindoa dela, errege bihurtuko da (751. urtean koroatuko da).

PIPINO LABURRA → LEHEN ERREGE KAROLINGIARRA (dinastia berri bati hasiera emanez) Honek aitasantutzaren bedeinkapena eta onarpena izango du.

PIPINO LABURRAREN OINORDETZA → Erreinoa (frankoen ohitak jarraituz) bere bi semeen artean banatuko du (Karloman eta Karlos) 771. urtean Karloman hil eta Karlos FRANKOEN ERREGE BAKARRA bihurtu zen. Eta Horrela iritsi zen zen KARLOS HANDIA BOTERERA eta ere inperioa hedatzen joan zen.



Merovingiarrak kanporatuko dituzte, aita-santuaren influentzia politikoaren ondorioz. Vatikanoa izango zen, maiordomo hauek babestu egingo dutelako lurralde hori. Bestetik, maiordomoen oinordeko izango diren errege frankoek diru, botere, jende eta armada jarriko dutelako mahai gainean, islamaren influentzia geratzeko. VII. mendeko bigarren erdialdetik aurrera, apezpikuen izendapena erresumetako maiordomoek burutzen dituzte



Mayordomia: gaur egungo lehen ministroen antzekoa. “Etxearen zaindari”. Baita estatuko finantza guztiak kontrolatzen dituen ministroa. Politikan eskuhartzea.

→Frankoen erresuma Herstal-eko Pipinoren ondoren (714). Akitainiako dukerria erresuma frankoaren menpe dago, baina autonomia handiarekin

## 2.2 Europa Karolingioa (IX-X. mendeak)

Testuinguru eta ildo nagusiak (715/955)

- **Frantziatik kanpo kontuan hartu beharreko gertaerak:** Ionbardoek bihurtzea, misiolarien

lurpenak anglosaxoi lurraldeetan, islamiarren finkapena iberiar penintsulan.

- **Karolingiar eraikuntzaren hasierako urratsak:** mendebaldeko Europaren identifikazio politiko eta kulturala, kristandade latinoaren kontzientziakzioa Bizantziar imperioaren aurrean eta germaniar-erromatar gizarte eredu baten berriarazko hedapena.
- **Inperio karolingioaren esanahi historikoari buruz eztabaida historiografian.** Zenbait ondorio zehatz antzeman daitezke:
  - Hazkunde ekonomikoa eta Antzinaroaren eskema sozialen haustura (esklabotzaren beherakada eta nekazarien hedapena/hazkunde demografiakoa, merkataritzaren hazkundea, erromatar garaiko administrazio publikoaren gainbehera eta aristokrazien gorakada).
  - Latindar kulturaren sintesia karolingiar lurraldeetan: Elizaren irakaskuntza eta hedapena.
  - Iparralde germaniarraren etengabeko garrantzia hegoalde erromatarren aurrean (mediterraneotik-atlantiar itsasora).
- **Karolingiar aldiaren bukaerak frontera egonkortasuna finkatzen du:** iberiar penintsulan (errekonkista), hungariar lurraldean, bikingo eta pirata sarrazenoren ahulezian.
  - Inperio karolingioaren beherakadaren ondoren, printzerri eta erresuma sendotu ezberdinak izango dira europar nazio batzuen etorburu edo abiapuntu. Wessex (Ingalaterra) eta Asturiaseko (Hispania) erresumak Karolingioen influentzia eremutik kanpo jaiotakoak.

Karolingioen gorakada

Erromako Aita Santuaren autoritatea onartzen duen eremuaren murrizketa bizantziar hedapen eta islamiar erasoaren ondoren (Eskoziatik Beneventora, Rhin ibaitik Pirineoetara; laister angloxsasi eta iberiar periferia).

#### **Merovingiar erregeen berezko lur zatiketa:**

- **511:** Klodobeo Handiak frankoen erresuma banatzen du bere seme Clotario (Neustria), Teodoriko (Austrasia), Clodomiro (Orleans) eta Childebertoren (Paris) artean.
- **VII. mende erdialdea:** 3 erreinu merovingioek benetazko dinastiak eratzen dituzte: Austrasia, Neustria eta Borgoina. (Austrasian sortuko da Karolingiarren familia)
- Banaketa honen ondorioa oinordetza izango da, erregeak bere semeen artean banatu zuelako eta lurralde frankoa erresuma ezberdinetan banatu zen.

#### **Gertaera nabarmenenak**

- **VII. mende bukaera:** Herstal-eko Pipino hiltzen da 3 erresumen maiordomiak batuz (687-714), Akitania eta Britainaren independentzia galarazi gabe.
- **714-741:** Karlos Martelek berriro elkartzen ditu hiru mayordomiak eta "frankoen errege" izendatzen hasten da. Elizaren jabegoak eta aberastasunak kendu eta aristokratei emango dizkiete, hauen onespina lortzeko.
  - Lurraldeen hedapena/konkista eta fronteren handiagotzea barne tentsioak apaltzeko: Frisia, alamanak, saioiak eta islamiarrak Poitiers-etik gertu (732). Desamortizazioa eta lur irabaziak armagizon aristokratentzako. Elizaren jabegoak eta aberastasunak kendu eta aristokratei emango dizkiete, hauen onespina lortzeko.
- **732:** Poitiers-ko gerlan islamiarren expantsio gelditu mendebaldean.
- **739:** Gregorio III.ak Carlos Martel deitzen du aitasantutzaren jabegoa defendatzeko lobardoen aurrean (gaitzetsia).
- **741:** Carlos Martel hiltzen da eta boterea bere seme Karloman (+747) eta Pepin Laburraren (Pipino "el Breve") artean banatzen du (maiordomien banaketa, Txilderiko III.a da errege).

**751: Pepin Laburraren tronuratzeari Aita Santuaren baiespenarekin (Zakarias) eta Txilderiko III.aren kanporatzea:** Bonifazio legatuaren gantzutea Boissons hirian: dinasti aldaketa eta franko eta Aitasantutzaren arteko aliantza.

- Lonbardoek aurkako kanpainak: "*Erromatarren patrizoa*", "*Konstantinoren donazio faltsua eta San Pedroren ondarea*".
- Hegoaldean konkistak: septimania (islamiarrak) eta Akitania (768 Waifredo dukearen heriotza).

**768: Pepin Laburraren heriotza,** erresuma frankoaren zatiketa bere seme Karloman (+771) eta Karlosen artean. Maiordomoa da.



Bizantiar lurraldeak (VIII.mendea)

Italiar penintsula VIII.mendea: Lonbarroak, Erromaren dukerria eta Bizantiar lurraldeak.

Pipino “el Breve”-aren donazioak Esteban II.ari: Ravennako exarkate-herria eta Pentapolis (756)

**Constitutum Constantini.**

**Konstantinoren donazio faltsua (VIII. mendeko bigarren erdialdea)**

“Beharrezkoa iruditzen zaigu, guri, gure gobernatzaile guztiei, senatuari aho batez, aristokraziari eta erromatar Inperio loriatsuaren menpeko diren herri guztiei, zorioneko Pedrok bezela, Jainkoaren semearen bikario esleitua izan zena lurrean, printzerri hori erabiltzen duten Aita Santuek (pontifizeek) eskuratu dezatela, gure eta gure Inperioarengatik emana, mundu honetan gure naretasun inperialak daukan botere baino handiagoa (gainekoa) [...]”

Ezartzen dugu, orduan, pontifizeak izan dezala lau sede nagusien primatutza, Alexandria, Antiokia, Jerusalem eta Konstantinoplakoak, unibertso osoko Jainkoarenak diren beste eliza guztienak bezala [...].

Hortaz, eta pontifizearen sona (prestigioa degradatua ez izateko, hura dignitatean lurreko Inperioak baino distira handiagoa izan dezan eta honen handitasuna gainditu dezan, zorioneko Silvestre pontifizeari, Aita Santu unibertsalak utzi eta ematen diogu gure Letran-eko jauregia ez bakarrik, lehen esan bezela, baizik eta Erromako hiria, Italiako beste probintzi, leku eta hiriak, mendebaldeko bestelako lurralde guztiak bezala [...], berari emanak izan daitezelako, berak eta bere oinordekoek bere botere eta tutoretza jardun dezatela, konstituzio honek betirako eta eskubide osoz erromatar Eliza Santuari eman dizkiolako [...]”

➔ Konstantinok aita-santutzari eman zizkiola lurraldeak. Bere izenean idazten dute, baita beste gobernatzaile izenean ere, faltsifikatuz. Erromako aitasantutzako eskribek idatzia. Kristautasun



guztietako sedeak (mendebaldekoak barne) aitasantutzari. VIII. mendetik XIV-XV. menderarte balidazio legala izango du goi politikan.

**Karlos “Handia” (Karlomagno): Europaren bateratzailea (768-814).**

### **Lurralde konkistak:**

- **Ekialde paganoa:** saioi lurraldeak 772-802 (802 “Lex Saxonum”), Bavariako dukerria (788), abaroen inperioa (796).
- **Hego-ekialdea:** Zaragoza eta Bartzelonako gobernari islamiarrei laguntza, Abd-al-Rahman I. arekin eroso ez zeudenak.
  - 778: armadaren atzeguardia erasotzen dute baskoiek, hemen Roland kondea hiltzen da (“Chanson de Roland” XI. mendekoa).
  - Akitaniaren autonomiari bultzada erresuma baten sorrerakin, erregearen semea (Ludobiko Pio) honen titularra izanik.
  - Islamiar eremuetatik ihes ari diren “hispani”-en erakarpena, frankoen aurreratzeak geroago Gerona (795) eta Bartzelonan (801).
    - Erresistentzia indigena frankoen laguntzarekin defentsa eremu bat bideratuko du Katalunia eta Nafarroa artean (“Marca Hispanikoa” 795ean).
    - Pirineoetako ibarrak aristokrazia batek lideratutako organizazio batez hornituko dira frankoen erresumatik independentzia lortuko dutenak: Iruña/Pamplona (IX. mendea), Aragoi (809), Urgel (815), Bartzelona, Osona eta Gerona izango dira nabarmenenak.
- **Italia:** aitasantutzaren lurralde eta jabegoaren defentsa lonbardoaren aurka (774. urtean Pavian sarrera eta erresuma lonbardoaren desagertzea): “lonbardoaren errege” eta “erromatarren patrizio”.



### **Koroatze inperiala eta bere inplikazioak**

**800:** Erroma, Eguberria. Leon III Aita Santuak enperadorearen koroa ezartzen du oilar-mezan: *renovatio Imperii romanorum*.

- **Errege frankoaren gailentasun politikoaren teoria garatzen da mendebaldeko Europa eremuan** (Orleans-eko Teodulfo eta York-eko Alkuino).
- **Inperioko enperadorearen koroatzea Bizantziok onartuko du 812. urtean** (Miguel I), Venezian emandako zenbait liskarren ondoren.
- **Agustin politikoa:** San Agustinek interpretaturiko jainkoaren hiria zentzu sinbolikoan esfortzu militar eta politikoari esker lurrian bilakatu daitekeen ideia garatzen da.
  - Elizak enperadoreak hartutako neurri politiko-eklesiastiko eta doktrinalak onartuko ditu honek kristautasunaren frontieraren defentsa gauzatu duelaren ondorioz.

### **Inperioaren antolaketa politiko eta administratiborako erreformak**

Lurralde anitz eta zabalegiak garaiko baliabideekin administratuak izateko, baita espazio politiko global bakar edo batean ulertuak izateko.

- Lurralde bakoitzeko legeen nortasuna onartua izango da inperioan kompetenzi batzuen jarduerarekin konpentsatu egingo dena: arlo eklesiastiko, ogasun/fiskalitate, ekonomiko eta aministratiboetan.
  - Apezpikuen izendapena eta kleroaren defenza, feria eta azoken kontrola, monetaren antolaketa, auzitegiak.
- Zirkunskripzio administratiboen sorrera kompetentzi hauen jarduerarako (konderriak, 200 baino gehiago). 795. urtetik aurrera Akisgran izango da inperio eta platium-aren (gortearen) hiriburu iraunkoarra.
  - Kondeen zerenigak errege-ordezariengatik ikuskatua, bata laikoa eta bestea elizgizona (*missi dominici*).
  - Eskualdeko aristokraten etengabeko sendotze eta igoera.
- Erreforma eta berritasunak hiru jarduera-arlo nagusietan (ogasuna, justizia eta gerra). Erresumek ez baitute baliabiderik erresuma aurrera eramateko.
  - **Ogasuna/zerga-sistema:** inperioko ondasunen kontabilitatea. Zilar eta urrezko txanponen hedapena.
  - **Justizia:** konderri auzitegien jarduera zuzena edo ordezkatua: *scabini* (kontseilari profesionalak), ordalia eta duelu errekurtsua.
  - **Gerra:** Basailluen fidelitate edo leialtasunean finkatuko den eraikuntza inperiala. Basailutza piramide edo erlazioen sendotzea feudoen entregarekin eta gizarte eskemen berregiturarekin. Gerlari eta gizon libreen aldikako biltzarrak erregearekiko lotura eta betebeharrak berritzeko.

Kondeek basailuei lur zatiak eman konderri hauen barnean, eta hauek landuta ateratako etekin ekonomikoekin gerlariak kontratatu zituzten.

### **Inperio Karolingioaren krisi eta desagertzea (4.kapitulua, sajonia alemania gehienbat)**

**814-840:** Inperioaren ondorengotza Karlomagnoen bizirik dirauten seme bakarrean, Luis Errukitsua(Ludovico Pio).

- Lurraldeen ohitura politiko eta sozialen anitzen onarpena.
- Elizaren sendotzea Inperioaren batasun erlijioso eta kulturala lortzeko elementu bakarra bezela.
- Inperioaren zatiketa (830 eta 833. urteko erresumen banaketa-akordioak Luis Errukitsuaren semeen artean [Lotariok Frankoen erreinua, Pipinok akitania eta Luis Germaniarrak Babiera], 840. urteko gerratea[Luis eta Carlos burusoilak(Pipinoren semeak) Lotarioren aurka]), vikingo eta hungariarren “bigarren inbasioak”, eskualde boterren ugaltze eta hedapena.
- **842: Estrasburgoko zina**, gaur egun mantentzen den dokumentu bat, bi hizkuntzatan idatzia beraz esan nahi du bi talde desberdintzen zirela (bi hizkuntza hauek alemana eta frantsesaren aintzindariak izanen dira).

**843: Verdungo ituna:** Inperioaren zuzeneko zatiketa hiru zatitan: Frantzia Occidentalis (Karlos II “Burusoila”), Lotaringia (Lotario), Frantzia Orientalis (Luis Germaniarra). Banaketa ematearen irizpideak: Lurren hedapena (neurria) eta inperioaren lurralde horien aberastasunaren arabera banatuko dituzte.


Aurreko prozesuen jarraipena ondorengo erregealdietan.



- Printzerri-lurraldeen sendotzea (konderri ezberdinen bat-egitea duke batzuen gidaritzapean). Aristokrata batzuk konderriak batuko ditzute. Aristokraziaren sendotzea.
- Frantziako erregeen kotsakrazio zeremonialaren ezarpena Reims-en eklesiastikoen partaidetasunarekin.
- Fidelitate omenaldi egite eta feudo-entregaren arteko lotura estua (887. urteko Quierzy-ko kapitularretan feudoaren oinorde-kondizioa onartzen da). Ez bakarrik kondeen beren oinordeko artean titulua legatzeko aukera, beraiek sortutako lur-sailetatik ateratakoa ere oinordekoei eman dezakete.
  - Kapitularra: Frankoen legedia.

### Karolingiar dinastiaren desagertzea eta erresuma berrien sorrera


- Frantzia Occidentalis: 888-897. Pariseko kondea zen Eudes-en izendapena errege bezela (Paris defendatzen du vikingoen aurrean, prestigioa du); karolingiar dinastiari oposizio egingo diona (Eudes kondeak) honen bukaera Hugo Kapet-aren etorrerarekin gauzatu delarik.
- Lotaringia: zatiketa eta jabegoen eskualdatzea akordio ezberdinen ondoren. Mersen-eko (870, hemen Lorenaren zati orientala Luis Germaniarrarentzat doa eta Italia Carlos burusoilarentzat, gainera enperadore izendatzen du aitasainduak) eta Ribemont-eko (880) akordio/itunak.
- Frantzia Orientalis: muga egoera hungariar eta bikingoen aurrean botere eskualdeen sendotzea bultzatzen du konderri batzuen inguruan, oinordetza kondizioa izango dutenak.
  - 918: erregearen titulua Henrike I.aren eskuan, Sajoniako dukea, bere seme Oton-I.ak jarraituko dionak.



Verdun-eko ituna (843) eta inperioaren zatiketa: "Frantzia Occidentalis", "Lotaringia" eta "Frantzia orientalis"

X-XI. Mendeko Frantzia eta Germania:  
Dukerri eta konderri anitzen bilakaera  
feudoen entregen ondorioz  
Hugo Kapet-aren Frantzia (987)





EXPANSIÓN DEL REINO DE ASTURIAS (SIGLOS VIII-X)




ASTURIASEKO ERRESUMAREN HEDAPENA: INPERIO KAROLINGIOAREN INFLUENTZATIK KANPO



“Hispaniako marka”: erresuma eta konderri berrien hastapenak




## Inperio Karolingioaren periferiak



ANGLO, SAXOI ETA JUTOEN SARRERA FINKAPEN ETA HEDAPENA V-VI. MENDEETAN



Anglo, saxoi eta jutoen finkapen eta hedapena V-VI.mendeetan.



Mercia erresumaren lurralde hedapena eta Offa-ren harresia galestarren frontera (VIII.mendea). 7 erresuma desberdin

Egitura politikoari dagokionez, monarkia honetan erregetza ondorengozkoa zen baina herriak (soldaduak, edota nekazariak eskubide politikekin) eztabaidatu egiten du errege honek merezi duen edo ez erreinatzea “Marteko zelaian” erabakitzen zen (askotan hau guztiz sinbolikoa zen eta erregea beti goraiatua zen); baina Poitierseko guda ondoren eskubide hau galtzen dute. Administrazioari dagokionez, Gortean dago boterearen zentroa eta hemen maiordomoak du kontrolatzen, kantzillaria kontalariek eramana da eta hiriak erregeak hautatutako duke batek eramanak dira.

Elizari dagokionez, erregea da buruzagia (garaian erregea jainkoak hautatua zelako) eta aitasainduaren aginduetara daude.

Komertzio pobrea, mediterraneoan soilik trukeak egin ekialdean Islama dagoelako (eta penintsula iberikoan) hala ere, Rhin eta Loira artean zentro komertzial bat garatuko da non frisoiak, juduak eta sirioak elkartuko diren besteak beste.

Kulturari dagokionez, berpizkunde karoligiarra aipatu beharko genuke, hemen hainbat herrialdeko pertsona biltzen dira eta eskola palatino sortzen dute. Eskola honetatik hainbat idazle eta historiagile aterako dira. Monastegiak hezkuntzan jarduten hasiko dira.

Konstituzioa eratzeko eta erregulatzeko **tribunal popularra** eratzen da

- **Europaren aintzindaritzat ematen da Karolingiar inperioa.**

**Ideia orokor batzuk:** Azterketan sartzeko aukera (?)

- **Inperio Karolingioak latindar kristandadearen  $\frac{2}{3}$  hartzen ditu**, gainerakoa bere periferian kokaturiko lurraldeei dagokio, gizarte erromatar-germaniarren oinordeko diren herri edo populatzeei. Gainontzeko  $\frac{1}{3}$ :  
Iparraldean: Britainiar irltako "anglosaxoiak" bakarrik.  
Hegoaldean: Asturiar mendietan finkaturiko erresistentzia, Bisigodoen oinordekoak
- **IX.mendea: bi irudi nagusien inguruan biltzen diren gizarteak: Wessex-eko Alfredo eta Asturiaseko Alfontso**
  - Bere oinordekoentzako erreferentzi izango diren lurralde eta protagonistak, Ingalaterra eta Espainiko nazioen hastapenak bezela hartuak izango direnak.

**Latindar Kristandadearen frontierak arriskuan jartzen ari diren kanpoko herriak:** bikingoak, hungariarrak eta pirata sarrazenoak.

### 1. Wessex-eko erresuma: Britainiar Irltako nagusitasunaren bidean

- **450.ean yutoak, angloiak eta sajoiak etortzen dira irlalara (irlatan britainiarrak zeuden lehenagotik)**
- **VII. mendea: anglosaxoien finkapena Ingalaterran kristautasunareko bihurtzearekin**
  - Buruzagi batzuen botere zehaztapena eta prestigioa lurralde jakin batzuetan hauek zerbitzatzen duten erresumen gailentasuna irizpide bezala. "Bretwalda"-ren irudi edo ideia (britainiar buruzagia): errege batek besteekiko gailentasuna aldarrikatzen duena.
  - Iturri dokumentalen urritasunak aldi ezberdinen segida/txandaka erakusten digu non erresuma ezberdinek bideratzen dute gailentasuna (Iparraldetik-Hegoalde norabidean).
- **VII.mende bukaera: Northumbria erresumaren nagusitasun krisia besteengan** (Eskoziako kanpainen porrota elementu azpimarragarritzat).
  - Erresumaren lurralde hedapenaren politikak ez zen lorpen esanguratsuetan gauzatu eta aristokraziari prometituta zitzaizkien aberastasunak ez zitzaizkien lortu. (Eskoziaren independentzi eta bilakaera erresuma propio baten sorrerarekin IX. mende erdialdean).
    - \* Dirua ikusten denean arazoak ez daukate garrantzirik, arazoak kendu egiten dira. Eskozia iparraldea nahi zuten konkistatu baina ez zuten lortu.
- **VIII. mendea: Mercia-ren hegemonia: Ethebaldo (716-757) eta Offa-ren (757-796) erregealdiak**
  - Karolingiarren antzeko lurralde administrazioa: konderrriak ("shire") eta erregeek izendatutako gobernariak ("earldomen" → konde edo jaunak); moneten lanketa (txanpongintza/"acuñación"); legedi idatzi baten bultzapena.
  - Irlaren hegoaldea batzeko helburua galestarren aurka (Offa's dyke/ Offaren harresia.- Lur eremu ofentsibo bat hedatu).Beren lurren hedapena bultzatuko du gehienbat.
  - 793: vikingoen sarrera irlaren iparraldean, gerra fronte berria (Lindisfarneko monastiaren hustiaketa)



- **IX. mendea: Wessex-eko nagusitasuna. Eghberto (802-839)**
  - Kornualles eta Londres-Bristol muturren arteko garaipen militarrik. Northumbriarekiko influentzia: “*Bretwalda*” titulua.
  - Bikingoen erasoak (Danimarkatik etorriak) eten egingo dute lurralde hedapenak: inbasoreek Northumbria, East Anglia eta Mercia konkistatuko dute Wessex izanik erresuma independente bakarra vikingoen aurka.
- **Bikingoen aurkako erresistentzia: Etelredo I (866) eta Alfredo Handia (871-900)**
  - Hasierako garaipen militarrik eta daniarrekiko frontera Chester eta Tamesis ibaiaren artean: “danelag” (daniarren legea)
  - Erresumaren garapen eta sustapena: monastegiak, kultura hedapena merkatal hiri eta herrien (*Wiks, boroughs*) hazkunde/bultzada (100 merkatu gune bi mendeko denbora tartean)

-Erresumaren eta errege boterearen sendotzea oinordekoen lurralde hedapena ahalbideratzen du frontera marraren iparraldean daniarren aurka: X.mende erdialdean daniarren hedapen ahalmena gutxitu egin da (bai Ingalaterra, bai kontinentean).


**ETELREDO (978-1016)** inbasio danesa sahiesten saiatu ordainketa haundiekin

1016-1035: Kanuto haundia erregea hautatu, honek Danimarka eta Ingalaterra du erreinutzat, ez du zentralizatzen erreinu, hainbat dukeri ematen dizkio lurrak (hau hiltzean honek borrok eragin).

- **Erresumaren antolaketa azpimagarria Europa mailan Eliza eta lurralde administrazioaren arloetan. Ez dute parekotasunik**
  - Dunstan apezpikuaren erreforma eklesiastikoa
  - Konderrien eskema antolaketa (*shire*) hiru funtzio nagusien jarduerarekin: militarra (*earldoman*), erlijioa (apezpikuak), zerga sistema eta justizia (*sheriff-ak*)
  - Etengabeko gerra egoera frontieretan erlazio pribatuen susatepan bideratzen du gbernu sistema.
  - Earldomen-en sendotzea, konderri ezberdinak batu edo elkartu egingo dituztenak autoritate bakarrean bere oinordekoei legatuz
  - Basailutza elazioen hedapena jaunen (*thane-n*) autoritatearen mesedetan: herrixka bakoitzak/gehienek bere jauna edukitzera arte
  - Gizartea 3 klasetan ordenatu : Nobleak (*thane*), gerlari libreak (ceorls) eta jopuak
  - Ingalaterra 3 eliza mota ezberdin, galeseko britainiarra, irlandiar eskozesia eta anglosaxoia

- **980: Daniarren erasoaldi berriak**

- 1013: Daniarrek inbaditu Ingalaterra



Alfredo handiaren kanpainak eta lurralde hedapena Daniarren aurka

Britaniar irlen administrazioa




## **2. Asturiaseko erresuma islamiarren aurka**

- **711:islamiarren sarrera iberiar penintsulan eta bisigodoen erresumaren desagertze azkarra**
  - Erresistentzi eremu gutxi batzuen mantentzea iparraldean islamiar konkistatzaileen liskar eta instalazio/domeinu politika ezberdinen ondorioz
    - Finkapen sendoa Ebro eta Guadalquivir bailaretan (oso sendoa)
    - Zergadun eta militar Kontrol soila Kantauriar eta pirinioetako mendikateetan
      - Erresistentzi eremuen garaipen eta hedapenaren iturburuak:
    - Menditar indigenen sentimen edo aldarrikapenak, kutsu tribalak dituztenak (asturiarrak eta baskoia)
      - Beste populazio minoritario baten (erromatar-germaniarren oinordeko edo legatuaren kontzientzia dutena) kokapen/antolaketa sozial, militar eta doktrinala
- **Asturiaseko erresuma lehena da bisigodoen legatua jaso eta babestuko duena.**

- Aristokrata bisigodoen ihes eta babeslekua bihurtzen da islamiarren hedapen konkista gauzatzen diren bitartean (Karolingioen marka hispanikoa bezala).
- Lehen garaipen militarra Covadonga/Europako pikuen inguruan (722) Pelayo buruzagiearen lidergoaren buruan.
  - Ondorengo kronikariek bisigodoen Hispania bateratu baten eta menditar indigenen aldarrikapen politikoen aliantza bezala aurkeztuko dute (azken hauek Kantauriar mendikateetatik kanpo eraturako botereen aurkariak izan direnak historikoki).
- **Alfontso I (739-757).**
  - Kantauriar mendikate inguruan erresumaren finkatze eta sendotzea (lurralde hedapenak). Bere autoritatearen menpe.
  - Dueroko ibarrean, 2 mendeetan zehar Asturias eta Cordobatik at gertauko den lur eremua (oso handia), populazio urria izango duena. Islamiarren presentzia urria.
- **Alfontso II (792-842): Asturiareko erresumaren sendotzea**
  - Bisigodoen oinordetza errekueratuko dituen arlo zibil (officium palatium) eta eklesiastikoen (apezpiko eta mostegien) bultzada.
  - Toledoko apezpikuensedetik (islamiaren menpe) deslotura eta sede propio berri baten sorrera (“adozionismo” eztabaida teologikoaren testuinguruan)
  - Santiago apostoluaren hilobiaren ustezko aurkikuntza Compostelan; Asturiaseko erresumak, honen bedeinkapenarekin, bisigodoen oinordeko bezala aurkezteko erabili duena
  - Karlomagno eta Luis Errukitsuaren gortearekin kontaktuan dagoen erresuma

### Asturiaseko erregeak




- Karlomagno eta Luis Errukitsuaren gortearekin kontaktuan dagoen erresuma
  - Islamarren aurkako aldizkako erasoaldiak (razzias), bai Dueroko ibarrean, bai Cordobako dokumentuen menpe dauden beste eskualdetan (IX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera).
  - Erantzun gogorak izango dituztenak islamiarrendandik, Alaba eta Gaztelako lurraldeetan gauzatuko direnak
- **Alfontso III (866-910): Kantauriar Itsaso eta Duero ibaiaren arteko eremuaren behin betiko antolaketa politiko eta soziala**
  - Errege kroniken lehenengo elaborazioak, Asturiaseko erresuma bisigodoen legatu edo oinordetza aldarrikatzen dutenak.
  - Hiriburuen tokialdaketa Oviedotik Leongo hirira

- Erresumaren lurralde antolaketa konderrietan hauen buruzagiak sendotzen ditu, batik bat eremu periferikoetan (Galizia eta Gaztela)
  - X.mende erdialdea: Gaztela eta Alabako Fernán González, Karolingioen ondorengo konderrien oso antzekoak.


“Eo tempore populantur Primorias, Lebana, Transmera, Supporta, Carranza, Bardulies quae nunc appellatur Castella, et pars maritima Gallaeciae. Alaba namque Bizcai, Alaone et Urdunia a suis incolis reperiuntur semper esse possessae, sicut Pampilona, Degius est, atque Berroza. Itaque supradictus Adefonsus admodum magnanimus fuit, sine offensione erga Deum et Ecclesiam uitam mérito inimitabilem duxit. Baselicas plures construxit et instaurauit. Regnavit annos XVIII. Vitam feliciter in pace finiuit” .

Alfontso III.aren Kronika. Alfontso I.aren garaiko Asturiaseko erresumaren lur hedapena azaltzen duena.



### 3. 1. Panplonako erresuma (hedapena)

- Islamiarren presentzia gaindituta, Panplonan ezarritako botereak karolingiar eta baskoi elementuak elkartzen ditu.
  - IX.mendea: Inperio Karolingiotik etengabeko distantziamentua eta Ebroko Ibarra domeinatzen duten islamiarrekin famili-aliantza, izaera politikoarekin (Iñigo Arista: lehen aristokrata baskoia eta Banu Qasi-tarrak (hasieran bisigodo aristokaratak, islamera bihurtu zirenak)).
  - 905: dinasti aldaketa. Iñiga dinastiaren bukaera eta Jimenotarren ezarpena.
- **Antso Garcés I (905-925).** (Jimenotarra). Asturiaseko Alfontso III.aren laguntzarekin boterean ezarriko da.
  - Erresumaren finkapena eta lurralde konkistak Errioxan, Ebroko hegoaldean. Banu Qasitarren aliantzaren haustura.
  - Errioxako monastegien erainkuntzari bultzada (San Miguel de Albeda, San Millán de la Cogolla)
  - X.mendeko bigarren erdialdea: Konpostelako Santiago bidearen lehendabiziko erromesak. Merkataritzarako erabiliko den sarea.



Panplonako erresuma. Expansion del reino de Pamplona hasta Sancho el mayor (905-1035)



### 3.2. Aragoiko konderria

- Pirineo, Canfranc- Siresako ibarrak eta San Juan de la Peñako mendien inguruan
- Menditar eta karolingiar influentzia duen boterea, IX.mende bigarren erdialdean finkatuko dena (Galindo I Azuárez)
- 922: konderriaren bateraketa Pamplonako erresumarekin (Andregoto Galindez kondesaren ezkontza Antso Garcés I.rekin). Mende bateko lotura/ibilbidea, etorriko diren mendeetan berriro gauzatuko dena.



ARAGOIKO KONDERRIAREN HEDAPENA 900. URTE INGURUAN

### 3.3. Konderri katalanak

- Konderri ezberdietan antolatutako lau eremuak, geroago "Katalunia" deitura hartuko dutenak (XII.mendean)
  - Karolingiar influentzi handiagoa duen eremua
- **IX.mendea: Karolingiar administrazioaren krisia eta lurralde botereen sendotzea.**
  - Bartzelonako konderriaren protagonismo gailentasun gorakorra islamiar frontera
  - Wifredo Bilotsuak (Wilfredo "el Velloso" 840-897) konderri katalanak bere buruan batzea lortzen du (momentuz), Bartzelonako kondearen indarra bultzatuz. Bere ondorengoak ez dira errege frankoen autoritateaz izendatuko.
    - Konderrien banaketa eta oinordetza ondorengoaren artean
- Llobregat ibai ertzeraino zabaltzen den eremua
- Iragan godoarekin harreman gutxiagoa erakusten duen botere Asturiasekoarekin alderatuz.



### 4. Bikingoen hedapena: Norvegiar, daniar eta suediarrek

- **VIII.mende bukaeran agertzen dira bilingoek bideratutako erasoen lehendabiziko erreferentziak iturri dokumentaletan, monastegien arpilatzea biltzen dituztenak gehienbat.**
  - Akeologiak franko eta bilingoen arteko lehenagoko erlazioen aztarnak aurkitu ditu (frisiar merkatarien bitartekotza)
  - Eraso hauek haien lurraldetako superpoblazioaren eta egoera politikoarekiko haserrearen ondorio dira.
  - **800.urtean bilingoen inkursioen ondorioz Karlomagno kosta zaindaria ezartzen ditu.**

- **Eztabaida esanguratsua mantentzen da oraindik historiografian eskandinaviar lurraldetatik datozen herri ezberdinen ezaugarri eta mugikortasun/migrazio mugimenduen inguruan.**

- Protohistorikoak diren gizarteak, nekazaritza, abeltzaintza, artisautza eta merkataritza jorratzen dituztenak.
- Famili-lotura luzeak dituzten gizarteak, buruzagi batzuen gidaritzapean, kliente eta esklaboak dituztenak.
- “primus inter pares” funtzioa betetzen duen nagusi-gerlaria, bere kontseilu edo batzordean familia buruzagi hauetan aholkua jasotzen duena.
- Erliebearen ezaugarriak erresuma txiki eta anitzen sorrera eta bizikidetz bueltatzen du, nahiz eta hiru nazionalitate historikoen lehenbiziko zirriborro edo hastapenak islatu aldi berean: norvegiarrak, suediarrek, daniarrak...

- **Erasoaldien modalitate edo ezaugarriak:**

- Itsasbidez, 10-12 ontzietan antolatutako taldeak, atlantiar itsasoko kostalde eta ibaiertzetara bideratutakoak.
- Monastegiengandik aberastasunak izango dira gehienbat arpilatzaileen helburu. Horregatik iturri gehienak monastegietakoak ditugu, beraien ikuspuntutik idatziak.
- Eskandinaviar herri bakoitzak hedapen modalitate ezberdinak jarraitu/hartuko ditu


- **Norvegiarrak** (esploratzailea): Atlantiar itsasoko iparraldetik (Amerikako kostaldea), Groenlandia, Islandia, Feroe eta Orcada irlak, ipar Irlanda, Maroko. **864ean islandian ezarri eta 972 groenlandia kolonizatu.**

- **Daniarrak** (konkistatzaile eta arpilatzaileak): Normandia eta Ingalaterran, **980-990 urteetan (Danelag: Northumbria, East anglia eta Mercian).** **850-865era harpillaketa ugari baleares, toscana, provenza, portugai eta Balearesen**

- **Suediarrak** (merkatariak ea mertzenarioak, errusiako inguruan ibiltzen direnka): Baltiko, Beltz eta Kaspiar itsasoetan, Novgorod eta Kiev, baita Bizantzion agertuko direnak.

- **930.urtetik aurrera hedapen mugimenduen gainbehera edo etenaldia**

- Normandoen sendotzea. 991. urtean Rollón buruzagi bikingoak karolingiarren basailu eta kristautasunera bihurtu ondoren Normandiako duketitulua jasotzen du.
- Daniarren finkapena eta autonomiaren sendotzea nahiz eta Wessex-eko ingalaterren menpe gelditu aurrerantzea (954 ERrico I Norvegiarren heriotza Stainmore batailan; Norvegiarren garaile?)



## MANUALEKO MAPA

### 5. Hungariar/Magyarrak

VI.mendean eslaviarrak gaur egungo moravian kokatzen dira baina 803.urte arte abaroen kontrolpean egongo dira, gero karlomagnoren erreinaldian honen herrialde tributarioa da.

Ural mendietako herri ugrofinlandiar (edo finougiar)-etatik datozen nomadak, Errusia inguruan mugituko direnak IX.menderate

- Pechenengoen presioak mendebaldera bultzatzen ditu, avaroen Panomia (Karlomagnok deuseztaturikoa) okupatuz.
- 830-846 urteetan moraviako dukadoa eratzen da.
- 870-94 urteetan Svatopluk (Rastislaoren iloba) bere osaba atxilotzen du eta errege frankoari entregatzen dio honela 874ean Forcheimeko bakea firmatuz
- **60 urteren buruan aldizkako erasoaldiak bideratuko dituzte, bai bizantzio, bai latindar kristandadeko lur eremuetan**
  - 906ean moldavia suntsitua da hungariarren eskutik
  - ca. 895-955: berrogei "razzia" Germania, Italia eta Frantzia; monastegi eta herrixken arpilatzeak bilatzen dituztenak gehienbat finkatze-ahaleginen aurrean
- **Alemaniar dukeen defentsa Panoniaren aurrean hungariaren esadoaldiak gelditzea lortuko du.**
  - 955: Sajoniako Oton I.ak garaipena lortzen du Lech ibaiertzean.
- **Kristatasunera bihurtze eta erresuma (Hungariako Esteban I, 997-1038); beste tribu nomaden aurrean kristandadearen frontera.**
- **1173-96 : Bela III-k anexionatu Dalmazia, Croacia eta Bosnia**

### 6.

Hungariar zazpi tribuen "odol paktua" irudikatzen duen pintura. IX. mendeko akordioari erreferentzi egiten diona. Almos printzearen eskutik hungariar herriaren finkapena Europan bideraniko duenak.

Beralan Székely-ren pintura (1835-1910), Kecskemét-eko (Hungaria) udalerrian ikusi daitekeena.



### Pirata Sarrazenoak

- Mediterraneoan, Al- Andalus eta Ipar afrikako emiratoen autoritatik kanpo finkatuko diren kostaldeko herririkak, “piraten errepublikak” bezela.
- Mediterraneoako kostaldeko hirien arpilatzea bilatzen dute gehienbat, gizon eta emakumeen harrapaketaekin (esklabo bihurtzeko)
- IX-X. mendeetan Pechina (Almeria), Denia (Alicante), Balear uharteetan eta, batik batik, Italiako uharte zein penintsulan izango dira erasoaldi emankorrenak
  - Sizilia, Bari, Erroma, Toscana, guria, Provenza
  - Frantziako Provenzan. Fréjus-eko hirian finkatzea lortuko dute.
- 972: Provenza eta Piamonteko kondeek pirata sarrazenoak kanporatu eta menderatuko dituzte.



## ELIZA ETA KULTURA: BERZPIZKUNDE KAROLINGIOA

### 3.1 Mendebaldeko kristandadearen jaiotza (V-VIII. mendeak)

#### Gertakari eta ideia orokorrak

312. urtean, Erroma inguruan, Constantino bere ejertzitoarekin zegoen, eta bat-batean bisio bat izan zuen (gurutze distiratsu bat agertu zitzaion. Honek Constantino Jainkoarekin hitzamatara ekarri zuen, eta enperadore bilakatu zen.

Hemendik aurrerako enperadore berriei "Nuevo Constantino" deitzen zitzairen, eta esaten da izendatu aurretik ezaugarri berdin batzuk zituztela:

- Erregin kristau batek bere senarrari kristau bilakatzeko esaten dio

- Honek kristautasuna gutxietsi egiten du
- Kristau bilakatuko dela esaten du Jainkoa agertzen baldin bazaio
- Agertu egiten zaio eta enperadore kristau bilakatzen da

Teorian horrela izanda ere, esaten da praktikan gizon inportanteen oniritzia jaso behar zuela.

- 451-452: Calcedoniako IV. Kontzilio ekumerikoa (Kristoren natura doblearen eztabaida); Leon I Aita Santuaren bitartekotza Atilaren aurrean.
- 754: San Bonifazio misiolariaren heriotza, germaniarren ebankelizatzailea; Pepin Laburraren gantzutea Esteban II Aita Santuaren eskutik.
- Latindar/grekoerromatar Elizaren arteko "dualtasuna" (aldi bereko existentzia) hiru mende hauetan zehar (Mendebaldeko Eliza vs. Bizantzio).
- V. mende erdialdetik-VIII. mende erdialdera: erromatar-germaniar Eliza mendebaldeko kristandadearen sorreraren protagonista. Antolaketa eklesiastikoa, ebangelizazioa, *corpus* kultural baten lanketa.

### Antolaketa eklesiastikoa

**Mendebaldeko Erromatar Inperioa erori ondoren sare administratiboak berrantolatu zituzten, honekin batera:** apezpikuak eta "eliza propioak" (pribatuak), aristokraten areagotu eta harreman sozialen pribatizazioaren ondorioz.

- Apezpikuen indarra hirietako boterearen bermatzaile bezala (apezpiku-sedeak), laikuen interbentzionismoa hauen izendapenetan.
- Apezpiku sare administratiboan handiagotze eta berregokitzapena da Elizaren aurrerapen eta organizazioaren aztarna Mendebaldean: parroquia-elizak, "menpeko" elizak (sufragáneas), eta "eliza propioak" (pribatuak).

### Aita Santutzaren sendotze teorikoa: Erromako apezpikuaren lehentasun eta nagusitza

- Erromako apezpikuaren gailentasuna errebindikatzen duen doktrina baten eraketa beste apezpiguengan, garaipena eta irauntzea lortuko duena germaniar erregeen ahultasun politikoaren ondorioz.
- Erromako lehentasuna onartua izango da germaniarrengatik (erregeak), baina zalantzan jarria izango da Bizantziotik: monofisita eztabaida (kontroversia) eta Konstantinoplako patriarkaren eskumikatzea (escomulgar) Felix III.aren eskutik (484).
- Aita Santu zehatz batzuen oinarri eta postulatu oldarkorrak: Gelasio I (492-496). Eklesiastikoen independentzia aldarrikatzen duen iritzia enperadoreen aurrean.
  - Gregorio Magno/Handia (590-604): San Agustin eta greziar filosofoen herentzia; Independentzi doktrinala Bizantzio aurrean (VI.mende bukaeran lombardoan sarrera Italian), Erromako Aitasantutzaren gailentasuna Mendebaldean, "agustinismo politikoa" (aita santuak bere autoritatea maila altuenean bermatzeko zenbait neurri politiko hartzen dituzte, Gregoriorena da esanguratsuena. Aita Santutzak helburu politko/militar batzuk lortzeko ahalmena ematen die errege germaniarrei), *regula pastoralis*.

### Europaren bihurtzea

Nori bidalia? Hartzaileak: Erromako elizaren kide bataiatuak, arrianoak eta jentilak (paganoak).



San Agustinen dogma landu edo zehatzearen aldean, ebanjelizazio lanak minimo batzuk lortzera bideratzen dira: Kristautasunaren “folklorizazio” eta “germanizazioa” Mendebaldean jentilei gerturatzeko. Ebanjelizazioaren arrakasta errege boterearen laguntzan/bultzadan izango du elementu erabakigarria (misiolariei laguntzeko legedia)

- a) **Misiolariek zabalduak kristau mezuaren sinplifikazioa:** kristauak eskaintzen zuten Jainkoa jentileek jainkotu zituzten dibinitate eta natura indarrak baino gainekoa/ahalmen handikoa zenaren ideia orokorra; honek ekartzen duen zibilizazioak gailentasun handiagoa duen bezala
  - Nicea-ko Kontzilioak (325) ezarritako kredoaren oinarriak: Jainko kreatora, bekatu originala, Kristoren haragitazioa, gurutzean hiltze eta piztuera.
  - Baliabideak: santuen gurtza mezaren ospakizuna, sakramentu batzuen ezarpen/formalizazioa (bataioa eta penitentzia).
- b) **Europako ebanjelizazioaren protagonistak: monje eta misiolariak**
  - Mediterraneoan III.mendean sortu ziren mugimendu anakorera, zenobitar (cenóbite) eta monarkalen hartze/onarpena
  - V.mendea: Marsellako San Victor, San Patricio, San Jeronimo, Tours-eko San Martin, San Agustin (monastegietan praktikan jartzeko orientazio-idatziak burutzen dituzte)
  - V-VIII.mendeak: oinarritzko izango diren bi tradizio monastikoen hedapena
    - Irlandar Monakotza: San Patricio, San Columba eta San Columbo
    - Erromatar monakotza: San Benito eta beneditar araua (*ora et labora*), eta Casidoro (*Intitutiones*).
- VI eta VII mendeetan eraikitako abadia garrantzitsuenak: Monte Kasino abadia, Trebiñuko eremitegiak, Clonmacnoise abadia (Irlanda) San Ciaran (545), Lerins-eko irla eta abadia (Cannes-Frantzia)

**Kristianizazio prozesua errsuma barbaro/germaniarretan eginkizun oso luzea izango da:** errege eta eliteen bihurtzetik hasi bataioarekin eta kristau mezuaren egokitzapenarekin jarraitzen du.

Hedapena:

- Italia hegoaldea, Frantziako *midi*-a (hegoaldea) eta Espainia erromatar tradizioko pertsonen arduraren
- Britainiar irlak, Frantziako iparraldea eta Germania: misiolari irlandarrak

### Corpus kultural kristau baten lehendabiziko konposaketa

V-VIII. mendeak: kristautasunaren hedapenarekin batera, Eliza mendebaldeko herrien artean zabaltzeko nahi duen *corpus* kulturaqla zein den erabaki behar du

Eztabaida garrantzitsua, doktrina eta moralaren inguruan, baita kezkatua benetako Jainkoa ezagutu ez duten herrien herentzi intelektuala jasotzeko komenigarrotasunaren inguruan.

- San Agustinek kultura klasikoa egokitu egingo du tradizio kristauarekin.
- Marciano Capella-k 7 arte liberalen ezarpena bultzatuko du: gramatika, retorika, dialektika, aritmetika, geometria, musika eta astronomia.
- Greziaren ordezkapena kultur hizkuntza bezala Mendebaldean.
- Eskolen murriztapena: antzinan publikoak zirenak lekua utziko diote monastegi eta apezpiku izaera dituztenei.

Egile eta obra esanguratsuak *corpus* kultural horri forma emango diotenak, Europaren oinarri intelektualak izango direnak:

- Boecio (480-525)
- Casidoro (485-604)
- Gregorio Magno/Handia (543-601)
- Sevillako Isidoro (k.a. 570-636)
- Beda Beneragarria (672-735)

### **3.2.1. Antzin Erregimeneko Elizaren eraikuntza (VIII-IX. mendeak)**

#### **Testuinguru eta ideia orokorrak**

- Antzinako Erregimenaren Elizaren eraikuntza: norma teologiko (hirukoiztar eta sakramentalak), moral eta antolatzaileen definizioa: XII.XIII mendeetako sinodoen akordioekin batera (hartutako neurriak halabeharrez), gaur eguneraino iritsiko direnak neurri batean.
- Errenazimendu eta berpizkunde kulturala: eremu kulturean enperadoreak ideia zentralizatzaileak inposatzeko nahia, bere heretzi edo ondorengotzaren alderik iraunkorra. Bultzada aktibitate nabarmena- Karlo Magnoren garaian zehazki.
  - a) Antzin Erregimeneko Elizaren eraikuntza

#### **Aldez aurretik gogoratu beharrekoak**

- **Latinaren ezagumen eskasa komunitate eklesiastikoan:** Mundu intelektualean eta administrazio zibilean
  - IX. mendeko kopista askok (abadi eta monastegietan lan egiten zutenak) ez zuten ezagutzen kopiatzen zituzten textuen esanahia, letrak marraztearekin bakarrik konformatuko direnak, kredoak buruz ikasiko dute. Hutsunea latinarekin
- **Inperio Karolingioaren zatiketaren ondoren, elite eklesiastikoaren sustapen edo igoera, botere politikoari helburu batzuk proposatzea lortuko duena**
  - Eskema doktrinal baten eraikuntza bultzatuko duena ere, gaur egunerarte iritsiko zaizkigun ohitura kulturalak sortzen lagunduz.
  - Garapen militar eta jentilen eta fedegabeen bihurtzearekin hedatuko direnak.
- **4 arlo edo eremu nagusi:** pentsamendu teologikoa, organizazio/antolaketa eklesiastikoa (Parrokietan), boterearen teoria politikoa, gizartearen ohitura mental eta materialaren txukunketa edo kontrola.

#### **a)Pentsamendu teologikoa**

- **“Adopzionismoaren”** aurkako borroka (Kristoren dibinitasun izaera txikiagotzen zuen interpretazioa, bere aitaren (Jose) seme izatera murrizten zuen bere garrantzia, erredezioaren balio unibertuala zalantzan jartzen zuen). Elipando, Toledoko atzapezpikua, eta Felix, Urgelleko apezpikuaren ideiak (785) Liebanako dohatsu, Osmako Eterio eta Yorkeko Alkuinoren eta beste elizgizon karolingiarren ezezkoa jasoko dute (792-797 urte bitarteko Sinokoak)
- **“Imajinen eztabaida”** (“Querella de las imagenes”): Frankfurteko kontzilioak (794) Niceako kontzilioaren dekretuak (787) ikonoen aldeko neurritz gaineakoak direla kontsideratzen du (“iconódulo”). Azken honek lehen krisi “ikonoklostari” jarri zion bukaera Bizantzioko Inperioan. Honek ez zuen eragin handirik izan mendebaldean.
- **“Predestinazioa”**: Rabano Mauroren postulatuen aldeko jarrera Godscalco-ren aurrean: gizabanakoen aukeramen librea (libre albedrio). Jainkoak ezarri/jakinean duen patuaren ideia aurrean.
- **“Filioque”** ideia defentsa (850-870): Trinitatearen hirugarren pertsonaren jatorria, Espiritu Santua, ez bakarrik Aitarengatik. Aita eta Semearen irudietik. Hau eliza latindar eta Aita Santuak babestu zuten, eta eliza greziarren desadostasunak haustura eragin zuen.

Laburbilduz, eliza karolingiarrak burututako lanek ez dute garapen teologiko handia, preokupazio morala dute, hierarkiaren interes doktrinal eta materialen defentsa egiten dute.

#### b) Antolaketa eklesiastikoa

- **Diziplina eklesiastikoa**: “*nikolaismoa*” (kargu erlijiosoek ezkontza eta ohaidetza onartzen zuena) eta “simoniaren” aurkako borroka (ondasun sakramental eta espiritualetan salmenta desagertzea).
- **Eliza sekularren antolaketa**: diozesi sinodoen maiztasuna handitu eta parroki sarearen (jurisdikzioaren) mailako ezarpena: hamarreneko eta hasikinen instituzionalizazioa (diezmos y primicias), fededunen behar sakramentalez arduratu.
- **Botere zibilarekiko menpekotasunak**: kargu eklesiastikoen izendapenak eta eliza “propio” edo pribatuak.

#### c) Monakotzaren berritze ahaleginak

- Aszetismo adierazpen mota ezberdinen industrializazioa, ermita bertsioen mugaketa eta arau unibertsal baten bultzada monastegietan (Luis Errukistaren eskutik).
- 816-817: Akisgraneko sinodoak eta Benito Anianoren ekarpenak. Nursiako Beitoaren arai primitiboa (ora et labora) erregela unibertsal bezela. X. mendean (Borgoina), Evesham (Ingalaterra) eta Bec-eko (Normandia) abadietan jarraituko duena. Botere zibilarekiko independentzia eta Aita Santuaren babes/menpean

#### d) Teoria Politikoa

- Lehendabiziko Aita Santuei erantsitako edo hauen egiletza aldarrikatzen duten falsifikazioetan aurkitzen da: Isidoro Monjearen “Dekretal faltsuak” (Le Mans c.a. 840-850), Nicolas Laren Proklamak (Aita Santua 858-867 urteen bitartean)
- Gurtza edo kultura zuzenduak dauden Elizaren ondasunen sakarlizazioa, eskumikatizazioaren zigorra izango duena.



- Aita Santuaren irudia berretsi Eliza Kristauaren buruzagi nagusi bezala, bai grekoa, bai erromatarra (863. urteko zisma Nikolas I Aita Santu eta Focio Patriarkaren eskutik).
- Aita Santutzaren autoritatearen jardutea munduko edozein botere espiritual edo denborakoaren gainean.

### e) Gizartearen ohitura mental eta materialen ("ekonomikoen") antolaketa bizita

